



BAKEAREN MARKA

EBBREN ONDORIOAK **BAKETZE-NORMALIZAZIO** INGURUAN.



SARRERA.

EBBREN ONDORIOAK
BAKETZE-NORMALIZAZIO
INGURUAN.

ELKARBIZITZARAKO
BAKE-BIDEAK.

EAJ-PNV BORTXAKERIAREN AMAIERA
ELKARRIZKETATUAREN ETA NORMALIZAZIO
POLITIKOAREN AURREAN.

TXOSTEN POLITIKOAK.

EUROPAR PARLAMENTURAKO
HAUTESKUNDEAK:

EUROPAR BATASUNA:
BAKERAKO ESZENATOKIA.

ADOS.

EUSKADI GLOBALERAKO ETORKIZUN
EGITASMOA. AUTOGOBERNUA,
NAZIOARTETZEA ETA PARTE HARTZEA .

EUSKADI,
NAZIOA EUROPAN.

2015ERAKO ARDURA
ETA ERRONKA POLITIKOAK.

ETA, asmo politikoko bortxakeria praktikatzen zuen erakunde gisa sortu zen unetik beretik, Euzko Alderdi Jeltzaleak aurre egin izan dio terrore eta giza eskubideak urratzeko praktika honi. Konta ezinak dira EAJk Euskadin bakea erdiesteko xedearekin egindako aldarriak eta gauzatutako ekimenak.

Frankismo garaian eta ibilbide demokratikoan, EAJk egina halak egin zituen ETA inoiz existitu behar ez zen erakundeak bere jarduerari amaiera eman ziezaion.

Hala ulertu izan du beti Euzko Alderdi Jeltzaleak. Bortxazko jarduna gaitzestetik eta deslegitimazio sozial eta politikotik harago, bere jarduna gure herrirako eta bere hiritargoarentzako bake iraunkorrera eramango gaituzten bideak bilatzean oinarritu du.

1977ko amnistia hartatik, ez da abagune publiko edo pribaturik izan, non Euzko Alderdi Jeltzaleak Euskadin bortxakeriaren amaiera bilatu ez duen.

EAJk elkarrizketa eta integrazio bideak arakatu izan ditu, orain arte antzuak izan direnak. Bakea den ongi gorenera hurbiltzen gintuzten akordio politiko eta sozialak ahalbidetu ditugu. Ajuria Eneako Ituna; Lizarra-Garazin egin zena moduko harremanak edo, azken aldi hone-tan, Loiolako elkarrizketetan.

EAJk neurririk gabeko ahaleginak eta sakrifizioak egin ditu, gure gizarte hau alferreko min eta sufrimenduz bete duen gatazka konpontzeko.

Euzko Alderdi Jeltzalea ez da arrakastara iritsi ez diren ekimenez eta porrotek eragindako etsipenez damutzen. Haietatik ikasi du, bortxakeriaren iluntasunaren amaierako argia ikusteko helburua izan duen alternatibak aztertzen jarraitzeko.


Bakea da helburu gorena. Ez du prezioa jarriko dioten ordain politikorik. Bakea Bakearen truke. Hori da konponbidearen giltzarria.

Hala adierazi izan dugu gure barne erakundeko agirietan: 1997ko Baketze-Normalizazioaren inguruko Ondorioak; "Elkarbizitzarako bake bidea" -2005eko urria; 2000-2004-2007ko Txosten Politikoak; Europar Hauteskundeetarako Egitasmoa –"Peace" Ekimena 2009; "ADOS" Egitasmo-Ekimena 2010- 2011; "Euskadi Nazioa Europan" – 2011ko Batzar Nagusia.

Bakea erdiestekoa, etengabeko ekimena izan da gure jardun politikoan. Eta, hala izango da bukaerara arte. Berehalakoa izan behar duen amaiera. Bakea orain- Bakea orain eta betiko.

Astelehenean, hilak 17, ospatuko den Nazioarteko Konferentziak lehen mailako eragile eta protagonistak izango ditu, eta aukera berezia da bortxakeriak behingoz amaiera izan dezan Euskadin. Atzamar punte zuki dezakegun bake hori, esku artetik isuri ez dakigun. Horixe da gure konpromisoa.

Euskal gizarte itxaropentsu dago amaieraren zain. Bakea orain- Bakea orain eta betiko. Hauxe da momentua.


IÑIGO URKULLU

E.A.J.-P.N.V.-ren E.B.B.-ren Presidentea



EBBREN ONDORIOAK
BAKETZE-NORMALIZAZIO
INGURUAN.

EUZKADI BURU BATZARRA,
1997KO OTSAILAREN 1A.



EBBREN ONDORIOAK **BAKETZE-** **NORMALIZAZIO** INGURUAN.

EUZKADI BURU BATZARRA,
1997KO OTSAILAREN 1A.

EAJ-PNV jabetuta dago bere egitasmo politikoa gauzatu nahi duen euskal gizartea zein den. Onartu, eta bereganatu egiten du, beraz, euskal gizartea ,bestelako gizarte modernoan gisara, norbanakoak bere askatasuna garatu eta baliatu nahi duen gizarte anitza dela.

Era berean aitortu eta bereganatu egiten du gizarte moderno ororen ezaugarri den aniztasunak euskal gizartearen kasuan, ñabardura bereziak dituela, hiritarrek beren aberriarekiko duten kontzientziari dagokionez, eta kontzientzia anitz hori herrialde bakoitzak era eta intentsitate ezberdinez bizi duten neurrian. Zentzu honetan:

1º.- EAJ-PNVk sortzetiko asmoan aldarrikatzen du Euskal Herriaren burujabetasuna lortzea, autodeterminazioaren gauzatzea , gaur egun Gernikako Autonomia Estatutuaren garapenean zehaztua, lurraldearen batasuna erdiestea eta gure herriaren indartze politiko, ekonomiko eta kulturala, hori delakoan euskal abertzaletasunak hurrengo urteotan egin beharko duen ataza.

Foru erregimena indarrez kendu ostean, euskal abertzaletasuna da euskal auziaren adierazpena, eta azken ehun urteotan EAJ-PNV izan da horren benetako protagonista.

ETA, diktadura frankista aldian sortu zelarik, auzi honen adierazpen bortitz eta ez demokratikoa da, eta terrorismo izenpean dauden gutxiengoen borroka modernoko teknikak bereganatu ditu.

2º.- Ehun urteko ibilbidean, gure barne jardueran eta ekimen politikoan jarrera demokratiko erabatekoa eta ukazina erakutsi izan duen Alderdia gara .

Ehun urteko ibilbidean, sekula ez gara helburu politikoak lortzea helburu duen indarraren tentaldian erori , ehun urte horietako berrogeita hamar urtean, debekatuta, kartzelaratuta eta bizitza sozialetik baztertuta egon garen arren.

Beste alde batetik, herri borondatea borroka armatuarekin ordezkatu nahi duen talde edo mugimendu oro gaitzetsi izan dugu.

3º.- EAJ-PNVren aldetik, bortxakeriaren erabilpenaren inguruan ditugun uste etikoetatik aparte, konbentziturik gaude ETak “ bortxazko alternatiba” horretan tematzeko hemen eta orain, kalte larria eragiten diola Euskadiri, bere nazio eraikuntzari, bere aurrerapenari, oreka sozialari, ekonomiari eta irudi onari .

Uste orokortua dago, polizien artean ere, bortxakeria xede politikoak lortzeko erabiltzen duten eta neurri batean babes sozialen bat jaso duten erakunde erradikal hauek, bide polizial hutsen bidez fenomeno konpon ezinak direla. Hau da, elkarrizketa eta negoziaketa mahairen batean amaitzen dutela.

4º.- Ez dugu onartu nahi, helburu politikorako zentzugabeko bortxakeriak irauten duen mundu mendebaldarreko azken txokoa izateko ideia, eta Herri gisa itotzen gaituen eta gorroto eta etsipenezko etorkizuna dakarkigun gatatzari konponbidea bilatzeko bidea aurkitu ezinik egotea.

Abertzaleak gara eta gure herriaren eraikuntzarekiko dugun konpromisoak derrigortzen gaitu Bakea lortzera .

Pertsona guztien giza eskubideekiko errespetua den oinarriko printzipiotik abiatuta, bortxakeria gure indar guztiz arbuiatuta, Ertzaintzaren jarduna babestuta, justiziak berak exijituta eta babestua izateaz gain, euskal gizarteak berak ere erailketa, bahiketa eta bandalismoa jasaten ez duelako exijitua eta babestua delako, konponbidea bilatu eta ahalbidetu behar dugu, bidea dela elkarrizketa, dela negoziaketa edo dena delakoa.

5º.- Hortik ba, EAJ prest dago arriskuak onartzeko eta mugitzeko, bakea lortzerik izan dezagun; baina inola ere garena izateari utzi gabe, eta ehun urtetan zehaztu den gure izate politikoarekiko bateraezinak diren estrategia, taktika edo lankidetzarik geureganatu gabe . Hau da, gure alternatiba edo estrategia politikoa bertan behera utzi gabe.

6°.- ETAk eta Estatuak gatazka hau konponduko dutelako usteari eszeptizismoz begiratzen diogularik, argi izan behar dugu ETAk Estatuarekiko negoziaketa zuzen eta eksklusiboa exijitu duela. Estatua lehen une batean ordezkatzan zuen espainiar ejertzitoak, gero Estatuko botereek eta orain Espainiar Gobernuak. Era berean, ETAk beti ukatu izan du EAJren edo bestelakoren esku hartzea, eta EAJri bakarrik eman zaió bidea garbitzeko ardura.

Negoziatzeko exijentzian, ETAk azken urteotan formulazio ezberdinak aurkeztu izan ditu: denbora luzean aldarrikatutako KAS alternatiba, eta azken aldian, 1995eko Apirilean “alternatiba demokratiko” izenarekin egin duten “bake eskaintza”.

“Alternativa” hau, propaganda zabalaren objektu izan zen eta Pérez Esquivelek Gonzalez Gobernuaren eskuetan jarri zuen 1995eko Abuztuan, Bitartekari argentinarrek ETAk aukeratu eta Gobernu hark onartu zuen. Duela gutxi, Aznarren Gobernuak behin betiko errefusatu du Esquivelen bitartekaritza.

Gobernu ezberdinen aldetik, ez da ukatu amaiera negoziatuaren edo elkarrizketatuaren posibilitatea, eta berretsi egiten da ETAk armak utzi behar dituela edo hiltzeari utzi behar diola eduki politikorik izango ez duen negoziaketan pentsatzen hasteko.

7°.- EAJ-PNVk ez du lehenago aipatu den negoziaketa prozesutan sartzeko asmorik izan, eta ez du asmo hori inoiz izan behar. ETAk ETA-Estatua negoziaketa eskemarenganako duen atxikimendua kontuan hartuta, EAJ-PNVk iragarri egiten du ez dela besoak gurutzatuta mantenduko, alde biko negoziaketa horren behin betiko gelditzearen aurrean. Beretzat gordetzen ditu bere ardurapeko jarrerak eta ekimenak.

8°.- Ondorioz, orden demokratikoaren eta bake sozialaren ardura-dun gorenara dela aldarrikatzen duen Gobernuari eta bere bortxazko metodoak bertan behera uzteko Gobernu horrekiko negoziaketa eskatzen duen ETARI zera adierazten diegu:

- a) Egoera honi amaierako puntua jarri behar zaiola.
- b) Zentzu horretan eginiko saiakera serio orok gure babesa izango duela, protagonista izateko asmorik gabe.
- c) Herriaren iritzia adierazteko mugimendu orotan parte hartuko dugula, helburuen artean zintzotasun eta zorrotzasunez, gatazkari konponbidea emateko giro ona sortzea badute; edozein kasutan jardungo dugu, euskal gizarteak inplikaturako alderdiek konponbide bilatze horretan jartzen duten zintzotasun eta ahaleginaren inguruko ondorio propioak atera ditzan.

9°.- EAJ-PNVk Ajuria Eneako Itunaren ondorio onak onartzen ditu, bertute nagusia izan delarik euskal gizartea bortxakeriaren zentzugabekeriaren aurrean sentiberatzea. Itun hori sarritan alderdi murriztaileenetik aztertu dute, eta normalizazio eta baketze eskaintza benetakoa den aldetik garatua izan beharrean, batzuek erabili izan dute “ fronte antiterrorista” eratzeko eta hedatzeko.

Itunaren parte hartzaileen arteko ezbaiak handiak izan direla eta direla kontuan izanik, Itunak baketze dinamika benetakoak eragingo baditu, biziberritze eta birformulazio eguneratua behar du, etorkizun laburrean beronen zabaltzea ahalbidetu dezan.

10.- Gurea bezain gaiztotuta edo are gaiztotuago dauden gatazkak bideratzeko xedez nazioartean izan diren bestelako esperientziei begiratuta, EAJ-PNVk ez dio uko egiten beste talde politiko,sindikal eta sozialekin, bazterketarik gabe, behar besteko harremanak eta ekimenak mantentzeari, Euskadin orain dagoen bortxakeria dinamika bideratzerik izan dezagun.

11.- Edozein kasutan, EAJ-PNVk Euskal Herriarekin partekatzen du bere BAKE gosea. Eta ez du beste talde politikoek aldarrikatzen duten beste desio dutela sinetsiko, bortxakeriaren arazoa trafikoko elektoraletik eta boterea -oposizioa dialektikatik irteten dela egiaztatu arte.

Bake eta normalizazio politikorako bidea luzea eta konplikatua izan daiteke. EAJ-PNVrentzat lehentasuna da bakea lortzea eta ahal dugun biderik laburrenetik eta duintasun eta askatasun markoan lortzea.

1992an esaten genuenez “porrotaren arriskuak ez du bakerako onura txikienarekiko parekotasunik”.

EAJ-PNVk bakea lortzeko bidean ez gelditzeko duen borondatea adierazi nahi du.



ELKARBIZITZARAKO BAKE-BIDEAK.

EAJ-PNV
BORTXAKERIAREN AMAIERA
ELKARRIZKETATUAREN
ETA NORMALIZAZIO
POLITIKOAREN AURREAN.

EUZKADI BURU BATZARRA,
2005EKO URRIAREN 10A.

ELKARBIZITZARAKO BAKE-BIDEAK.

EAJ-PNV BORTXAKERIAREN AMAIERA
ELKARRIZKETATUAREN ETA NORMALIZAZIO
POLITIKOAREN AURREAN.

EUZKADI BURU BATZARRA, 2005EKO URRIAREN 10A.

SARRERA. EAJ-PNVREN ERANTZUKIZUNA.

1. BAKE-BIDE BILA DIHARDU EUSKAL GIZARTEAK.

I. BESTE AUKERA BAT.

- Bakearen aldeko eragileak.
- Gizartearen heldutasuna.
- Bake zuzenaren alde.
- Guztion erantzukizuna.
- Guztion garaipena.
- Adiskidetze egitaraua.
- Kaltetuei aitorpena eta ordaina.
- Politikaren ordua.

2. ONARTUTAKO BALIOAK.

- Indarkeriaren aurrean gizabidezko gure hitza.
- Gatazkaren izaera Euskadin.
- Indarkeriaren aurkako borroka demokratikoa.
- Bakearen balioa.
- Irtenbide demokratikoaren bila.
- Bakearen eskubidea du Euskal Herriak.
- Elkarbizitza politikoa da erronka.

3. INDARKERIAREN BUKAERAREN HASIERA.

- Jardunbidearen giltza.
- Jardunbide politikoa babesteari uko egin.
- Indarkeriaren bukaeraz iritzi bateratua.
- Bakearen zerbitzuko espetxe eta bergizarteratze politika.
- Bake-bideak eraikitzeke erabakiak.

II. POLITIKAREN NORMALIZAZIORAKO AUKERA.

1. AKORDIO POLITIKOA BIDERATZEKO.

- Elkarbizitzarako oraingo eta geroko esparruak.
- Demokraziaren arauen onarpenean oinarritutako akordioa.
- Euskal gizartearen aniztasuna errespetatzen duen akordioa.
- Akordiorako baldintza bila.
- Erabakitzeke eskubidea eta itunerako erantzukizuna.
- Euskal gizartearen erabakia betetzeko konpromisoa.
- Lurraldetasunaren ulerkera demokratikoa.

2. NORMALIZAZIO POLITIKORAKO ELKARRIZKETA ETA AKORDIO MAHAIA.

- Akordiorako konpromisoak.
- Noiz, nortzuk eta non.
- Bi mahaiaik.

3. HERRIARI GALDETZEKO ERA ETA BALDINTZAK.

- Herritarrei hitza eman.
- Galdeketaren baldintzak.

SARRERA.

EAJ-PNVREN ERANTZUKIZUNA.

Herria zerbitzatzeko eta bakea lortzeko irrikaz eta asmo sendoz plazaratzen dugulan hau. Bidegurutze honetan EAJ-PNVko gizon-emakumeok onartzen dugun ekinbide politikoa garatzeko konpromisoak gakartza honetara. Izan ere, Euskadiko gizarteak gure esku utzi duen gidaritzak jardunbide arduratsua eta malgua, irizpide argiak, zuhurtzia eta apaltasuna eskatzen dizkigu EAJ-PNVren burukideoi. Batez ere, geuk ekiteko eskatzen digu, geure egitasmoa aurkeztuz eta gizarte eragileen partaidetaz, guztiontzat egokia den akordioa lortzeko geurea besteen egitasmoekin uztartzen lagunduz. Baina, erantzukizunak eragin diezagukeen zorabioaren ikara saihesteko geure erantzukizunari iskintxo egingo bagenio, geure buruari egingo genioke iruzur, are okerrago, gugan uste osoa jarri duen euskal gizartearen zati handi horri egingo genioke iruzur. Gure herriarentzat bakezko eta elkarbizitzazko etorkizunari begira erantzuten diogu erronkari.

Bakea irrikatzen du Euskadik eta normalizazio politikoa lortzeko gogo bizia du, gainera. Gatazka sakonean sartuta denbora gehiegi daramagu. Gatazka politikoa honek gure gizartean sortu duen ondoezari konponbide duina aurkitu behar diogu guztion artean. Gatazka politikoa horren ondorio eta adierazpen den EAJ-PNV, urte askotako memoria bizia duenez, gai da arazoari sustraitik heltzeko. Beste nazioetatik berezia den Euskadiren bizi-iraupenerako eta, XIX mendian foruak kendu zitzaizkionez, burujabetza berreskuratzeko jaio zen gure alderdia orain 110 urte. Georotik, belaunaldi askotako euskaldunek jasan dituzte gatazka politikoa horren ondorioak. Demokrazia, askatasuna eta Euskadi defenditzeagatik gerra, espetxea, erbesteak, erasoak eta premia gorria jasan dituzte euskaldunak.

Euskal gizarteari berari ankerki erasotzeko erabili da, zoritxarrez, euskal arazo hau: Euskal Herrian bertan eta hemendik kanpora ere hil, dirua kendu eta erasotu egin da askatasunaren izenean, euskal nazioaren arrazoibidea odolez eta laidoz zikinduz.

Bai Euskadiren demokrazia eta askatasuna defenditzeagatik erasoak jasan zuten pertsona haiek eta bai indarkeriak eta bortizkeriak kolpatu dituen guztiak arren eta arren ari zaizkigu gaurko Euskadirentzat, XXI mendeko Euskal Nazioarentzat, konponbideren bat eskatzen. Konponbideren bat alegia. Ez konponbidea. Segur aski, ez da betirako den konponbiderik. Agian, konponbidea ere ez da bat bakarra.

Aldatzen eta eremu zabalagoetan murgiltzen ari den gizarte modernoak da gure hau. Ingurune horretan bilatu behar ditu bakerako eta elkarbizitzarako akordioaren oinarriak, gaurko euskal gizarteak bere estatus politikoa eta soziala erabakitzeko aukera izan dezan. Demokrazia aurreratueta ohikoak diren moduen bidez euskal gizarteak erakusten duen nahia errespetatzen duen akordio ireki eta modernoak lortu behar da. Aldi berean, inguratzen gaituen nazioen gaindiko egitatea eta etorkizun hobeak, elkartzunean, eraikitzeko landu behar ditugun nazioarteko harremanak kontuan dituen akordioa

I. BAKE-BIDE BILA DIHARDU EUSKAL GIZARTEAK.

1. BESTE AUKERA BAT.

Bakearen aldeko eragileak. Euskadiko indarkeriaren behin-betiko amaiera marrazten eta argi-dirdaiak ikusten laguntzen duten osagaiak hauek dira:

- zenbait aldaketa euskal gizartean, pentsaeran, sentieran eta kontzientzian. Ezin ahaztu, jakina, bake talde desberdinak, erasotuen aldeko mugimenduak eta elkarrizketagune desberdinetako ekarria:

- belaunaldi berriekin zerikusia duten gizarteko aldaketak, ongizatearen lorpena edo bortizkeria ergelkeria dramatiko bihurtzen duten gazteriaren balio berriak:

- euskal gizarteko gehien-gehienek bortizkeriari egin dioten muzinak ez du atzera-bueltarik. ETAren ingurumariko askok ere muzin egin dio. Horietako askok, gutxienez, zalantzan jartzen du bortizkeriak ezertarako balio duenik;

- bakearen aldeko gure herriaren aldarriaren eta Euskadiren eraikuntza nazionalaren eta sozialaren aldeko bere apustuaren adierazle da Kurasaaleko adierazpena. Hor daude eta 2004ko abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrean erabiteko gehiengoan onartu zen Estatutu Berriaren oinarrien irizpideak;

- Herri Aginteek kudeatu duten aginpideak, batetik, euskal nazioaren nortasuna sendotu du erakundeen bidez; bestetik, berriz, bortizkeriaren jardunbidea ahuldu eta arrazoigabetu du erakundeetatik;

- Madrilen gobernu aldaketa. Besterik gabe talka gogorreko garaia amaitu da eta elkarrizketan eta aniztasunarekiko begirunean oinarritutako politika bideratu nahi da;

- Ezker abertzaleek onartutako Anoetako Adierazpenaren osagai batzuk. Elkarbizitzarako akordio lortzeko solaskidetzat baztertzen da ETA;

- Downing Street-eko adierazpenak, Stormont-eko akordioek eta Irlandako bakegintzak gurearen antzeko gatazka konpontzeko bideak jarri dituzte:

- Irailaren hamaikaz geroztik, nazioartekoa deitzen zaion bortizkeriak ETArengan izan duen eragina. Batetik, jendeari aparteko zirrara eta arbuioa eragin zion; bestetik, epaileen eta polizien elkarlana sendotu du European eta mundu osoan;

- inor hil gabeko aldi luzea

- Eusko Legebiltzarrerako egindako azken hauteskundearen ondoren sortzen den egokiera politikoa. Bi puntu hartu behar ditugu kontuan:

- Euskal gizarteari dagozkion erabaki handietatik inork ez du baztertua izaterik nahi eta, baztertu ere, ez da inor baztertu behar.

- Konponbide bateratzaileak, erdigunetik eta elkarri konprenituz burutuak, nahi dira.

Gizartearen heldutasuna. Gure gizartearen heldutasuna oso garrantzitsua izan da giro politiko hau sortzeko. EAJ-PNV/EA eta EB-Berdeak Koalizioaren akordioak dionez, “euskal gizartearen gehiengo-gehiengoak arbuiatu egiten ditu indarkeria eta bortizkeria politikagintzarako tresna bezala, bere gain hartzen du erasotuekiko elkartasuna eta gatazkaren konponbiderako, berriz, elkarriketa eta elkarrekiko begirunea onartzen ditu”.

Giro hau ez zaio egokierari edo legealdi bateko jokabideari bakarrik zor, ezta gobernuaren edo alderdi baten eginbideari bakarrik ere. Eragile gehiago ere baditu, noski. Guztion artean egoki konponbideratu beharreko arazoa da bortizkeria. Eskuartze eta erantzukizun desberdinekin, jakina. Hori garbi ez duenak nekez uler dezake nondik bila diezaiokegun irtenbidea.

Bake zuzenaren alde. Guztion artean zabaldu diogu bake zuzenari zirrikitua. ETAk menia hautsi eta urtebetetzea gogoratuz EBBk idatzi zuen agiriak zioen bezala, “duintasun eta askatasun esparruan”¹ Herritarren garaipen den bake zuzena, hau da, kalteak ordaintzea, adiskidetzea eta gizartea txirikordatzea. Izan ere, jokabide demokratiko horiek (bortizkeriarik eza eta guztien arteko elkarriketa) dira eta bakegintzarako tresna nagusiak. Mezu argia hots egin du euskal gizarteak; guztien artean egin behar da bakea, dogmakeriarik eta kontrakeriarik eta setatsurik gabe. Burutsu, apal eta guztion elkarlanez baliatu beharreko aurkara dugu aurrean.

Guztion erantzukizuna. Gogotsu, xalokeriarik eta gehiegizko nahikeriarik gabe, egin beharreko bidea dugu aurrean, norberak eta bestek egingdako onetatik eta okerretatik ikasi dugu eta. Inork ez du asmatzeko azti-makilarik. Horregatik ez da inor baztertu behar. Bake-bideko bidelagun bakarrak ez dira ETA eta Estatua. Gizartearen eginkizuna den bakegintzan ezinbestekoak dira eragile politikoak eta sozialak bakearen eta adiskidetzearen helmugara iritsiko bagara. Milaka euskaldunek guregan ipini duten konfiantzari erantzuteko geuregan hartzen dugu zilegitasun eta erantzukizunez EAJ-PNV bezala dagokigun eginkizuna. Gure herriaren bake zuzenaren eta iraunkorraren eraikuntzan argimuttil izan nahi dugu, gainera.

Guztion garaipena. Urte hauetan, zintzo eta zinez jokatu dugu bortizkeriaren arazoa alderdikieretatik kanpora gera dadin. Bake prozesuaren amaiera guztion garaipena izatea lortu behar dugu orain.

Adiskidetze egitaraua. Bortizkeriaren kalteak eta minak hain handiak izanik, bortizkeria amaitutakoan ere ez da elkarbizitzaren normalizazio osoa berehala suertatuko, zauri asko geratzen baita pertsonetan eta herrietan. Bakearen eta adiskidetzearen Plangintza oso bat guztiz beharrezkoa da ikuspegi horretatik. Horretan dihardu hiruko gobernuak. Izan ere, “beharrezkoa da bakearen kulturaren ekintzaile izatea. Bortizkeriari uko egiteaz gainera, jokabide etikoak geureganatzea eta bizitzea ezinbestekoa da. Adibidez, bakoitzaren giza eskubideekiko eta herriaren eskubideekiko, berdintasun, elkartasun, gizarteko justizia eta aniztasunarekiko begirune eta askatasun zibil eta politikoen defentsa eraginkorra”²

Helburu hori lortzeko orduan bere gain hartzen du EAJ-PNVk erantzukizun hori, dagokion neurrian. Horretarako, “gure gizartean autokritikarako gogoia, barkamena eskatzeko apaltasuna eta barkatzeko bihotz zabaltasuna piztuko di-

tuen zapuztutako konfiantza berreskuratu beharko dugu”³. Erakundeek bakarrik ezin dute zeregin hau bete. Alderdi politiko eta gizarte eragile guztien konpromiso eraginkorra eskatzen du.

Kaltetuei aitortpena eta ordaina. Guztion artean bultzatu behar dugun Bake eta Adiskidetze Plangintzaren ardatz dira indarkeriak eta bortizkeriak kaltetuak. Bakoitzak erakusten dien elkartasunaz gainera, bidegabeki jasanarazi zaien herioaren aitortpena gizarteak egitea beharrezkoa da. Aitorpen hori gabe, ezinezkoa gertatuko da gogoko zaigun adiskidetzeari gure artean bidea zabaltzea. Alde horretatik, bere-bereak egiten ditu EAJ-PNVk Giza Eskubideen Batzordeak bultzatuko eta Eusko Legebiltzarrak 2004ko ekainean onartutako erabakiak.

Politikaren ordua. Eusko Jaurlaritzaren oraingo Koalizio Akordioan hauxe aitortzen da: “aldi berri bati ekiten diogu. Beste aukera bat dugu. Ezin du inork beste aldera begiratu. Euskal gizarteak ez liguke barkatuko. Politika-politika egiteko garaia da. Eta armek isildu behar dute politikari entzungo bazaio. Ez gara elkarrizketari aurreko baldintzak jartzen ari, indar politiko gehienok onartzen ditugun bi oinarri nabarmentzen ditugu. Lehenengoa, gatazken sustraiak arakatu behar dira bortizkeria konpontzeko. Bigarregoa, Bakeak ez du ordain politikorik, baina Politikak asko egin dezake bakearen alde”. Hori da gure apustua larderiaren, itsumenaren, mugiezinaren edo irudimenik ezaren kontra, badakigu eta, politika bakegintzaren tresna dela dogmakeriarik, itsumenik eta itxikeriarik gabe eta gure herrian ohikoa izan den konponketarako eta akordiorako gogoz egiten baldin bada.

2. ONARTUTAKO BALIOAK.

Indarkeriaren aurrean gizabidezko hitza. Sortu diren bake-itxarobideak bete daitezke. Izan ere, bortizkeria baino indartsuagoak direla erakutsi dute euskal gizarteak eta erakunde demokratikoek. Irizpide etikoen eta gizabidezkoen garaipena da, nahiz eta kontuz egin beharreko lana geratu oraindik, jakina.

Bortizkeriaren behin-betiko bukaeraren atarian, ezinbestekoa da egiaztatzea zenbaterainoko okerbidea izan den politikarako eta zenbat kalte egin dien hainbeste jenderi eta euskal herrigintzari. Bistaratu behar dira, jakina, bortizkeriaren zilegitasunik eza, politikarako baldarkeria eta inolako moralik eza ere. Armekin batera, bortizkeria zuzitzeko erabiltzen diren larderiak eta helburu politiko jakinak lortzeko edozerk balio duela uste izatea baztertzeko direnean egingo da behin-betiko bakea. “Ez bortizkeriari/bai elkarrizketari” leloak, hau da, bakearen eta bide demokratikoen aldeko apustuak ez dio inori norbere asmo politikoei ukorik egiteko eskatzen.

Gatazkaren izaera Euskadin. Konpondu gabeko gatazka politikoa zahar bat dago Euskadin, ETaren bortizkeria baino lehenagokoa jakina. Erabakitze eskubidea duen herria ukatzeagatik luzatua. Konpontzeko, berriz, akor-

¹ ETAK menia hautsi ondorengo urtebetetzea zela eta, 2000ko abenduaren 28an, EAJ-PNVren EBBk egindako adierazpena.

² Lehendakari kargua hartzeko eztabaidan Lehendakariak 2005eko ekainaren 22an egindako hitzaldia.

³ Berdin

dio politikoen joko korapilatsua eta euskaldunen nahari errespetu demokratikoa eskatzen ditu. Gatazka hau ezin da ETaren iritziaren arabera ulertu, estatutuaren bidea zilegitasunik gabea izan dela eta bortizkeriara jotzeko arrazoirik badela onartuz, nahiz eta diktaduratik demokraziarako bideak, konstituzioaren testuak eta autonomiaren garapenak guretzat zenbat hutsune dituzten ondo badakigun. ETak ez zuen estatutuari buruz euskal gizartearen gehiengoak agertu zuen iritzia errespetatu, ez zuen hainbeste aldiz ahotan duen Euskal Herriaren hitza errespetatu. Bi upeletakoak dira nortasunen arteko gatazka eta bortizkeriarena; bortizkeria ez da gatazka politikoa berez darion zerbit. Eta bortizkeriaren luzapena patxadaz bideratu beharreko izaera politikoko gatazka bat edo “euskal gatazka sakona”⁴ isiltzeko edo ukatzeko erabiltzea onartezina da. Gure konpromiso etiko, politikoa eta zibikoak ez du, beraz, jasaten ari garen gatazka politikoa irtenbide elkarrizketatua ematen saiatzeko gure erabakia ezabatzen.

Indarkeriaren aurkako borroka demokratikoa. Baketzeko eta adiskidetzeko egokieraz betetako bidegurutze honetan, mehatxuak mehatxu, gure irizpide demokratikoen eta politikarekiko zein zuzentasunarekiko gizabideak ez duela bortizkeriaren aurka ere edozerk balio gogoraztera behartzen gaituzte. Era horretan, Estatuaren erakundeek egindako gehiegikeria larriak salatzen ditugu. Sistema demokratikoa larriki zikintzeraino zapaldu dira eskubideak ETaren aurkako borrokan, bortizkeriarekin amaitu nahian, Estatuaren agintaritzatik bertatik. Adiskidetzeko ezinezkoa gertatuko litzateke, beraz, Batallón Vasco-español. GAL eta auzitegiaren “okerrak” ere salatu gabe eta kaltetuen aitortpenik eta ordainik gabe.

Kilimarik sentiberenetan kilimatu da sistema demokratikoa azken urteotan. Hain zuzen ere, demokraziaren kalitatearen berme diren; legez kanpora bota dira alderdiak, egunkariak itxi, errurik gabeko jende baketsua espetxeratu da badaezpada ere, botere banaketa saretu eta narrastu eta, ETA aitzakiatzat harturik, euskal abertzaletasun demokratikoa eta euskal erakundeak erasotu dira gupidarik gabe, era mingarrian eta antidemokratikoan.

Euskadin gizarteko eta politikako harremanak normaldu nahi badira, PSOE lagun, “Aznarren aldiko” demokraziaren aurkako jokabideak eta, batez ere, ondorioak, oraindik bizirik dirautenak areago, gainditu behar dira behin-betiko.

Bakearen balioa. Alderdi politikoa guztiak onartzen dute irizpide hau, gaur egun; hiritarren esku bakarrik dauden erabakietan oinarritzen dela bakea zuzena, demokrazian. Alderantzizkoa, etikoki arbuiagarria, jendearentzat onartezina eta politikoki kontrajarria izango litzateke. “Gizarteko iritzi demokratikoarentzat ulergarria, onargarria eta txalogarria”⁵ izan beharko luke bake-bideak. Bortizkeriaren amaiera elkarrizketatuaren alde atera garenean historiak eman digun eskarmentuan oinarrituta atera gara. Izan ere, horrelako gatazkek elkarrizketaren eta akordioaren bidez bukatzen dira. Besterik da, jakina, euskaldunei bakarrik dagokien erabakitze esku bidea talde armatuari ematea.

Argi eta garbi esaten zuen 1988an Ajuria Eneko Itunak: “bortizkeriaren jarraipenak ez du Estatuaren garapena galdatzeko aitzakia izan behar, ezta, ordea, demokratikoki onartu ez diren burujabetza maila handiagoak lortzeko arrazoi ere. Bortizkeriaren bukaera eta gatazka politikoa elkarrengandik berezi beharra honetatik sortzen da; bortizkeriaren jarraipena ez da gatazka eragina, gaur egungo

esparru juridiko-politikoak euskal hiritar asko ase gabe utzi izanaren ondorio baizik. Hau dela eta, gizartearen gehiengo zabalak onartzen duen akordio politikoa lortze arren ezinbestekoa da herriaren ordezkarien artean elkarrizketari ekite. “Horregatik Normalizaziorako edozein Akordio gogoan izan behar du irizpide demokratiko hau; euskal gizarteak bere etorkizunaz galdetua izateko eskubidea duela, bortizkeriarik eta inposaketarik gabeko egoeran jakina eta, elkarren onarpenetik, aniztasunarekiko begirunez eta itunarekiko hitza emanez. Horren arabera, burujabetza politikoko eredu jakinean eta Euskadiko gizartearen eraikuntzan eta Estatuarekiko harremanen esparru juridikoan aurkitu behar du Normalizazioko Akordioak bere adierazpidea”⁶

Irtenbide duin eta demokratikoaren bila. Amaiera elkarrizketatuak irtenbide demokratikoa adierazten du, legeriak uzten dituen aukera eta bide guztiez baliatzea, biderik ez ixtea alegia. Ekimena eta erabakia alderdi politikoen ordezkarien eta, azkenik, euskal gizartearen esku dagoen prozesua abian jartzeko ahalbidea ematen du elkarrizketarako bi mahai zabaltzeko proposamenak. Gerorako gure erabakiak, ordezkari politikook lor ditzakegun akordio politikoa, ez ditu euskaldun gehienon nahia eta elkarrekin sortu ditugun erakunde demokratikoen zilegitasuna onartzeko gauza izan ez den ETa baldintzatuko. Burubide horiek kontuan, seguru gaude, bake eta adiskidetze-bideak egiten laguntzeko prest daudela euskal hiritarrak bihotz zabalez.

Bakearen eskubidea du Euskal Herriak. Justiziaren arloak eta giza eskubideekiko errespetua sendotzea eskatzen ditu bakeak. Bortizkeriarik ezetik hasten da bakea, eta hori bortizkeria erabiltzen dutenen esku dago. Indarkeriak eta bortizkeriak hainbeste herritarri bidegabeki eragin dion sufrimenduaren ordaina ematea ere eskatzen dio bakeak gizarteari. ETaren beraren inguruko askorengan iristen den sufrimendua bukatzea ere eskatzen du bakeak. Bakeak, zuzena eta iraunkorra izango bada, adiskidetzera eraman behar gaitu. Adiskidetzeak, berriz, bihotz zabaltasun handia eskatzen die herritarrei eta, batez ere, gehien sufritu dutenei.

Egitasmo politiko bat bera ere ez da bakearen baldintza izango. Edozein egitasmo politikoren gainetik daude euskaldunen nahia eta erabakiak. Gaur egungo erakundeen esparrua errespetatu egin behar da, beraz, erabaki eta nahi horiek sortutako erakundek direlako. Berdin errespetatu behar dira, etorkizunean ere, euskal gizartearen nahiaren arabera, lurraldetasunari buruzko molde desberdinak edo elkarbizitza politikorako egitasmoak.

Elkarbizitza politikoa da erronka. EAJ-PNVk bere jokabidean beti gogoan izan dituen irizpide gizakoi eta demokratikoen arabera, euskal gizartearen elkarbizitza eta elkartasuna gure ekinbide politikokoaren erronka garrantzitsuak direla uste dugu. Eta hori, Euskadiren eraikuntza sozialarekiko dugun konpromisoagatik bakarrik ez, baita, herri bezala, erkidego bezala, Euskal Nazioaren nortasun eraikuntzaren prozesuan, bere baitan, daraman nazio mailako eraginagatik ere.

⁴ Ajuria Eneako Itunean erabilitako esamoldea.

⁵ Amaiera elkarrizketatuari buruzko alderdien arteko Mahaiko akordiorako. Lan txostena (1998ko martxoaren 17an)

⁶ EAJ-PNV/EA/EB- Berdeak Koalizio akordioa (2005eko ekainaren 27an)

Nortasunen arteko borrokaren gainean ezin da nazio elkartu bat eraiki, ezta, bortizkeriarik gabeko egoeran, galdeketa aske eta demokratikoaren bidez euskal gizarteak adierazitako nahiaren kontrako egitasmoa ezarriz ere. Alde horretatik, jokoan dauden nortasun batzuen eta besteen arteko eskubide, balio eta interesen borrokak etengabeak eta ezinbestekoak dira. Bi aldeen artean konpromiso eta antolaketa bideragarriak erabakitzea da kontuan. Era horretan, ez da gaitzerdi euskal gizartearen aniztasunaren balioa, gure gizartearen funtsezko osagai aberasgarri eta baikorra baizik.

3. INDARKERIAREN BUKAERAREN HASIERA.

Jardunbidearen giltza. Politika eta bortizkeria konponezinak direla jakinik, EAJ-PNVk eskakizun demokratikotzat jotzen du prozesuaren amaierarako elkarrizketa erabakigarria ez dadila bortizkeriaren ondorio izan, bortizkeriari uko eginaren ondorio baizik.

Kongresuko diputatu guztiek, PPkoek ez beste guztiek, 2005eko maiatzean onartutako erabakiak hitzez-hitz du Ajuria Eneako Itunaren 10. puntua; “Bortizkeriaren amaiera elkarrizketaturako baldintza egokiak sumatzen badira, hau da, bortizkeriari uko egiteko egiazko gogoia eta jarrera garbia sumatzen badira, Estatuako agintarien eta bortizkeriari uko egiteko prest daudenen arteko elkarrizketaren alde gaude. Jakina, baztertezina den irizpide demokratikoa errespetatuz beti ere, hau da, herriak aukeratutako ordezkarien esku utziz auzi politikoen konponbidea...”

Lehendakariak kargu hartzeko Hitzaldian berriki esana du: “ETAri dagokion urrats erabakigarria egitea eta bortizkeriari uko egiteko nahia, argi eta garbi, adieraztea. Euskal alderdi politikooi dagokigu gure erantzukizuna geure gain hartzea eta gatazka politikoen sustrai diren hautsi-mautsientzat” Normalizazio Politikorako Akordioa” lortzeko hitza euskal gizartearen aurrean ematea”.

Jardunbide politikoa babesteari uko egin. Ordezkaritza politikoen bidez eta herritarrei egindako galdeketa bidez euskaldunek erabakitzen dutenari zor zaion begirunearekin uztarrezinak dira bortizkeria edo talde armatu batek ezarri nahi dituen baldintzak. Alderdi politikoak eta erakundeak bakarrik dira prozesuaren demokratikotasuna bermatzeko ordezkariak eta erantzukizuna dituztenak, negoziaketa erabakigarria inposaketarik gabe eta aniztasunarekiko errespetuz egin dadin, egitasmo guztiak lortzeko baldintza berdinetan jarriz eta azken hitza herriari emanez⁷.

Indarkeriaren bukaeraz iritzi bateratua. Bortizkeriari uko egiteko zinezkotasunari buruz irizpide eta uste bateratuak izatea eskatzen digu aldi politiko berriak. Bortizkeriari uko egiteari buruz eta horren zinezkotasunaren egiaztapenari buruz ezinbestekoa zaigu alderdi politikoen artean iritzi zehatz adostua lortzea.

Bakearen zerbitzuko espetze eta bergizarteratze politika. Agintariek, edozein egoeratan, errespetatu eta babestu beharreko eskubideen jabe dira presoak, demokrazian, Espetze politikaren esparruan Eskubidedun estatuak ezerean ezaugarriak baldin badu, hauxe du; bergizarteratzeari begira egina dela beti. Alde horretatik, ezinbestekoak dira, orain areago, bakearen zerbitzurako, kode penalaren

erabilera malgua, etxetik hurbileko espetxeetan zigorra betetzea, sendikoak eta ahai-deak bakearen eta adiskidetzearen eragiletzat hartzea eta, inola ere ez, zeharkako erruduntzat. Horrek ez du inolako aurrebaldintzarik eskatzen. Espetxe politikari, behin-betiko, beste norabidetzat, adostua, eraginkorra eta malgua emateko ordu da, beraz. Erronka honen aldeko konpromisoa adierazten du berriro EAJ-PNVk. Dena den, Eusko Legebiltzarrak 1997an eta Diputatuen Kongresuk 1998an onartutako erabakien arabera, lehen egin beharreko zerbait zen, gure ustez.

Bake-bideak eraikitzeke erabakiak. Bortizkeriari bukaera ematea eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubideak Euskal Herrian ez zapaltzeko bermea dira helbururik lehenengoetakoak EAJ-PNVrentzat.

Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da:

- Pertsonen segurtasuna, askatasuna eta bizia bermatzeko eta mehatxatuei eta erasotuei babesa eta elkartasuna eskaintzeko baliabide demokratiko guztien erabilpena sustatu.

- Pertsona guztien oinarrizko eskubide guztien eta biziaren aldeko eta bortizkeriaren aurkako gizarte mugimenduak bultzatu eta pertsonen duintasun trukeazinean oinarritutako giza eskubideen kultura, inolako salbuespenik gabe, defenditu eta, batez ere, askatasun gabetuen giza eskubideak arreata bereziz zaindu.

- Mehatxu, bakartasun, bazterketa edo setakeriako era guztiak gainditzeko lasaitasun, elkarrizketa eta adiskidetze politikoaren eta sozialaren aldeko politikak garatu.

Eta oinarrizko eskubideen eta askatasunen aldeko ikuspegitik:

- Eskubidedun Estatuko askatasun demokratikoak, oinarrizko eskubideak eta oinarrizko bermeak berritzen lagundu.

- Politikaren, legeen eta erakundeen baliabide guztien erabilera babestu irizpide demokratikoa defenditzeko eta sistema demokratikoaren oinarriak berreraikitzeke.

- Askatasunen murrizketa salatzeko gizarteko mobilizazioak bultzatu eta demokraziaren atzerapen egoera nazioartean salatzeko moduak antolatu.

- Eskubidedun Estatuko askatasun demokratikoak, oinarrizko eskubideak eta bermeak sendotzeko legezko neurriak hartzera bultzatu.

- Gure gizartearen zati baten bazterketa saihesteko eta gizarteko talde guztiei baldintza demokratiko berdinetan parte hartzen lagunduko dieten prozesua bultzatzeko ekinbide politikoak onartu.

Adiskidetze bidea egin behar dugu, gainera. Lehendakariak 2005eko ekainaren 22an, kargu hartzeko hitzaldian esan zuen bezala: “Gure gizartean autokritikarako gogoia, barkamena eskatzeko apaltasuna eta barkatzeko bihotz zabalatasuna piztuko dituen zapuztutako konfiantza berreskuratu behar dugu. Guztion artean sufrimendua gainditzeko eta adiskidetze bidea elkarrekin egiteko betebeharrak morala dugu. Hori izango da eta gure gizartearen elkarbizitzarako oinarrikeria sendoa”.

⁷ Lizarrako adierazpena. Konponbidearen gakoak (1998ko irailaren 12an).

II. POLITIKAREN NORMALIZAZIORAKO AUKERA.

1. AKORDIO POLITIKOA BIDERATZEKO.

Elkarbizitzarako oraingo eta geroko esparruak. Herritarren nahia-
 rekiko errespetuaren eta Euskal Herriak bere etorkizuna libreki eta demokratikoki era-
 bakitzeko duen eskubidearen alde gaude.

Eskubide horren onarpenarekiko eta euskal gizarteak hartzen dituen
 erabakiekiko errespetua bermatuko duen bidearekiko akordioa lortzeko konpromi-
 soa gure gain hartzen dugu.

Leialtasun eta dogmakeriarik gabeko giro honetan, erabaki askearen jar-
 duerarako eta Euskal Herriko sentsibilitate politiko desberdinek onar dezaketen eus-
 kaldunen nahiarekiko errespetuarentzat ituna lortzeko hitza ematen du EAJ-PNVk.

Demokraziaren arauen onarpenean oinarritutako akordioa. Gaur
 egungo erakundeekiko errespetua aldarrikatu eta, aldi berean, beroriek aldatzeko
 aukera. Giza eskubideekin errespetuko eta bide demokratikoetatik defenditutako
 burubide eta egitasmo politiko guztien zilegitasuna onartzea eskatzen du horrek. Es-
 tatuaren antolaketari buruzko burubide desberdinei eta euskaldunon erakundetzeko
 eta antolatzeke moduei erasaten die irizpide horrek, demokrazian guztia da litekeena
 eta. Hau da, askatasunarekin eta giza eskubideekin errespetuko den edozer egitas-
 mo defenditzeko aukera ez ezik, gauzatzeko aukera ere behar da, bide demokra-
 tikoak erabiliz behar duen herritarren sostengua jasotzen badu behintzat.

Euskal gizartearen aniztasuna errespetatzen duen akordioa.
 Euskal gizartearen aniztasuna errespetatzen du EAJ-PNVk. Guztion topalekutat
 hartzea nahi izango genuke euskaldunek beren geroa erabakitzeko duten eskubi-
 dea. Guztiona den eskubidetzat sentitua eta aitortua izateko eran aldarrikatu nahi
 genuke, gainera. Nortasun-sentimendu desberdinekiko errespetua eskatzen du eus-
 kaldunen nahia errespetatzeak. Horretarako itunaren eta konpromisoaren esparruan
 txertatu behar dira nortasun-sentimendu horiek. Euskal gatazka politiko luzea, gure
 herriaren elkarbizitza pitzatu gabe, konpondu nahi dugunon erronka horixe da.

Euskal Herriaren eskubideen aitorten baikorraren aldeko jardun hau
 sendotuko bada, ezinbestekoa da Estatuak bere nazio aniztasunaren aldeko kon-
 promiso eraginkorra hartzea⁸. Euskal abertzaleen asmoak ez ote diren oso demokra-
 tikoak uste duen jendearen irudipen sendoa horrela bakarrik gaindi daiteke. Uste
 hori, gainera, are eta indartsuago nabarmentzen da gaur egungo egoeran, bigarren
 trantsiziotzat jotzen denean.

Akordioaren baldintza bila. Elkarbizitzako eredia zehaztuko duen
 normalizazio politikoaz akordioa lortzea da gure helburua. Aldi berean, baita buruz-
 buruko harreman eraginkorren eta leialtasun bermeen zein baldintzen harreman es-
 parrua Estatuarekin adostu beharra ere.

Gizarte aurreratuetan joko arauak finkatzekok bidea ituna da eta ez in-
 posaketa. Alde honetatik, merezi du Irlandakoa gogoratzea. Joko politikorako behar

diren gehiengoak eta erkidego bat zer den erabakitzeko beharrezkoa den akordio zabala berezi zituzten. Horren arabera, “adostasun nahikoa” beharrezkotzat jotzeko baldintzak aurrekusi zituzten. Guk ere geuk adostu beharko genituzke geure artean eta ez Estatuak bere aldetik bakarrik finkatu.

Erabakitzeko eskubidea eta itunerako erantzukizuna. Erabakitzeko gaitasuna hitzartzeko konpromisoari lotu diogu, Kanadako Auzitegi Gorenak zehaztu zuen irizpide juridikoaren arabera.

Eta horrelaxe jaso genuen Eusko Legebiltzarrak onartutako Estatu-tu Berriaren Proposamenean ere. Arazoak elkarrizketaren eta hitzarmenaren bidez konponduko diren topalekuetan pentsatuz nahi izango genuke burujabetzaren ariketa burutu. Munduaren antolaketa berrirako jarrerarik aurrerakoienek eskatzen duten alde-askotasuna gure gizartearen antolaketarako ere eska daitekeena da. Foru tradizioarik onenarekin eta gure bi estatutuen esperientziarekin, 1936koarekin eta Gernikakoarekin, ondo uztartzen den jokabidea da euskaldunen eta Estatuaren arteko ituna.

Euskal gizartearen erabakia betetzeko konpromisoa. Konpromiso bikoitzaren onarpena eskaintzen dugu:

- **Ez ezarri** orain arteko akordioek duten baino onarpen gutxiagoko akordioarik.
- **Ez eragotzi** orain arteko akordioek duten baino onarpen handiagoko akordioarik.

Ez ezartzeak euskal gizartearen nahiaren onarpena bermatzen du, gizartearen ekarpen eta integrazio politikoaren adierazgarri gisa; ez eragozteak Espainiako Kongresuaren debekua saihesten du. Formularik demokratikoa eta integraziaileena onartzen da, beraz, irizpidetzat.

Lurraldetasunaren ulerkera demokratikoa nor politikoa erabakitzeko oinarritzat. Euskaldun guztien batasun politikoaren alde egiten dugu lan EAJ-PNVko abertzaleok, baina txantajearen eta inposaketaren sustrai duten erabaki politikoei eragindako aldaketa onartzea eragotzi egiten digu demokraziarekiko gure uste sendoak. Eusko lurralde bakoitzeko euskotarrek eta berorien ordezkariak bakarrik erabaki ahal dute erkidego bakarra osatu ala ez, edo, hori ezean, elkarrekiko harremanak nola antolatu. Dena den, erabaki horiekiko begirunea eta jardura eraginkorra bermatu behar dira, Estatu-tu Berriaren Proposamenean zehazten den bezala.

Euskal Herriko esparru juridiko-politiko desberdinen egituratze politikoa lortu nahi du demokratikoki EAJ-PNVk eta horretan jardungo du politikaren bidez eta inolako inposaketarik gabe.

Kulturazko, hizkuntzazko edo politikazko lokarriez eta senidetasunaz hitz egiteak ez du Euskal Herria betikotzat eta aldaezintzat hartzen denik adierazten, ezta lurraldea biztanleen gainetik, herritarrek garai bakoitzean erabaki dezaketaren gainetik, jartzen denik ere. Horrelaxe jaso dago Eusko Legebiltzarraren 1990eko otsailaren 15ean Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubideaz onartutako Proposamenean.

⁸ Ikus 1998ko ekainean Bartzelonan egindako adierazpena

Eginoko Mahaiaren akordioa ere geure egiten dugu: “Eusko Autonomi Erkidegoak, Nafarroako Foru Lurraldeak eta Akitaniako eusko lurraldeek erabakitzeke duten ahalmena onartu, lurralde bakoitzeko biztanle gehienek argi eta garbi adierazi badute elkartzeko prozesuan arte hartzeko asmoa”.

Euskal Herriko hiru esparru juridiko-politiko bakoitzeko hiritarren nahia errespetatu beharrekoa da. Hortik aurrera, lurralde bakoitza bere gisa erakundetzea eta antolatzea bezain zilegi da, beraz, euskaldun guztientzat egitura politiko bateratua aldarrikatzea.

Nahiz eta Nafarroan eta Iparraldean dugun ordezkartza politikoa mugatuagoa dugula jakin, a argi eta garbi adierazi nahi dugu bi lurralde horietako beste indar politikoeekin eta gizarte eragileekin, elkarlanean, jardunbidea adosteko eta abian jartzeko EAJ-PNVk duen konpromisoa. Beraz, politikoen eta gizarte eragileen topalekuak eraiki behar dira Nafarroako eta Iparraldeko biztanleen erabakiak errespetatuko dituen akordio zabal bat lortze arren. Erabaki horiek errespetaturik, bidera daiteke beste eusko lurraldeekiko erakunde eta elkarten eraikuntza.

2. NORMALIZAZIO POLITIKORAKO ELKARRIZKETA ETA AKORDIO MAHAIA.

Akordiorako konpromisoak. Alderdien topagunea edo mahaia osatzeko, beharrezkoa zaigu, lehenik eta behin euskal alderdien artean konfiantzazko harreman-sarea konpontzea. Mahaiaren osaketak berak eta metodologiak atzerabuelta ezinezko bihurtzea edo, gutxienez, oso ziltzea eta partehartzaileak konponbiderako konpromisoari gero eta gehiago lotzea da helburua. Eginoko Mahaiak aurkeztutako burubidea oso interesgarria da. EAJ-PNV prest dago, beraz, gainerako indar politikoeekin partekatzeke. Zazpi konpromiso eskaintzen dira burubide horretan:

- giza eskubideei errespetua
- aniztasunari errespetua
- herritarren nahiari errespetua
- bitarteko demokratiko eta baketsuen onarpena bakarrik
- bazterketarik gabeko elkarrizketa
- hartzen diren erabakien bururatzeko negoziatua eta hitzartua
- lortutako akordioak ulertzeko eta betetzeko eran desadostasunik sortzen bada, auzia garbitzeko eta ebazpena betearazteko bermeak eta neurriak.

Lehendakariak, kargua hartzeko Hitzaldian, bere aldetik zehaztu zituen bost irizpideak geureak egiten ditugu: bi lehenengoen baldintzen esparrua aurkezten dute, horien arabera zirriborra daiteke nola, noiz eta non; guztion artean adostutako akordio politikoa lortzeko egoeran aurki gaitezen zein baldintza bete beharko liratekeen adierazten dute hirugarrenak, laugarrenak eta bosgarrenak.

1. Bortizkeriarik ezaren irizpidea. Bortizkeriarik eza eta giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa. Bide politikoak eta demokratikoak bakarrik erabiliko dira.

2. Bazterketarik ezaren irizpidea. Bazterketarik eza eta politikan, gizartean eta lurraldeetan dauden sentimendu guztiek parte hartzeko duten eskubidea errespetatu.
3. Joko demokratikoari dagokion irizpidea; herritarren nahia eta euskal gizartearen erabakitzeko eskubidearen aurrerabidea errespetatzeko konpromisoa.
4. Aukera berdinen irizpidea; aukera berdinen errespetua eta demokratikoki aldarrikatutako egitasmo politiko guztiek legerian irtenbidea behar dutela onartzeko konpromisoa.
5. Aniztasunari zor zaion errespetuaren irizpidea eta euskal gizartean dauden nortasun sentimenduen bideraketa ez ezartzeko eta ez eragozteko konpromisoa.

Azkenik, alderdien mahaian zehaztu beharreko akordioak hitzak eta eztabaidatu eta adostu beharreko eduki batzuk aipatzen ditu EAJ-PNV/EA/EB-Berdeak 2005eko ekainean izenpetutako akordioak. Besteak beste, Euskal Herria nor dela erabakiak hartzeko onartzea; lurraldetasuna, erabakitzeko eskubidea eta alde biko ituna.

Zeregin hauek aurrera eramaten parte hartzeko konpromisoa argi eta garbi ipini nahi du EAJ-PNVk. Baita akordioek oinarri politiko eta sozial zabala izan dezaten Alderdien Mahaian eztabaidatzeko aurkeztuko dituen proposamenak egiteko konpromisoa ere.

Estatutu Berriaren Proposamenean diren egitasmoak ere eramango ditu EAJ-PNVk eztabaidara. Hirukoak (EAJ-PNV/EA/EB) lortutako oinarritzko adostasuna da hor, nor politikoko Euskal Herriaren izaerari buruz, erabakitzeko eta erabakia betetzeko eskubideari buruz, lurraldetasunari buruz, Estatuarekin izan beharreko harreman esparruari buruz eta itunaren konpromisoari buruz⁹.

Eusko Alderdi Jeltzalea prest da, oinarri horiekin, konponbiderako eta akordiorako beste ahalegin bat egiteko. EAJ-PNVren erakundeekiko eta demokraziarekiko tradizioari jarraiki, egokiera berri honek beste jardunbide negoziatzaile bati ekitera behartzen gaitu, Euskadik, ahalik eta lasterren, kokapen juridiko-politiko egokia izan dezan. Gai horien inguruan akordio zabal eta integratzailea lortzeko erronka onartzen dugu. EAJ-PNVren ideologiari eta helburuei ukorik egin gabe, jakina.

Noiz, nortzuk eta non. Lehen aipatutako bost irizpideetatik lehenengoak baldintzatu egiten ditu denbora eta aldi erabakigarriaren hasiera. Horretarako, ETak bere jardunari uko egin behar dio edo Batasunak eta EHAK-ek uko egitea eskatu behar diote. Mahaian alderdi guztiak esertzeko baldintzak betetzea ezinbestekoa da. Inor ez dadila kanpoan geratu, non eta, tamalez, norberak ez duen hala erabakitzen. Zenbat eta gehiagok parte hartu orduan eta ordezkariak handiagoa izango dute eztabaidek. Horrek, berriz, akordio integratzaileagoak eta iraunkorrakoak egiteko aukera hobek emango dizkigu.

Bi mahaia, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak hirukoak (2001 eta 2005) izenpetutako Akordioetan beti berezi dira gobernagarritasuna, normalizazio politikoa eta bakegintza eta topagune desberdinak. Batasunak ere bide horretatik egin du

⁹ Ikus, adibidez Eusko Legebiltzarrak 2004ko abenduaren 30ean gehiengo osoz onartutako EUSKADIKO ESTATUTU POLITIKOA aldatzeko proposameneko Sarrera eta 1, 2, 6, 7, 10 eta 13 artikulua.

aurrera Anoetako Adierazpenean bi mahaitan kokatzen baitzuen jokalekua. Alderdi sozialistak ere onartu ditu bi elkarrizketaleku hauek.

Bi mahai hauek aldi berean egin edo ez eztabaidatzen denean elkarrengandik oso urrun dauden bi iritzi plazaratzen dira:

- Alderdien mahaian lor daitezkeen akordioak ETaren mehatxuari men eginez hartuak izango lirateke,
- ETaren kontuan sartu beharko lirateke akordio horiek, bestela ez litza-teke bukatuko eta.

Dena den, bakoitzaren ordezkartzaren arabera, zilegizkoak diren indar, nor-tasun sentimendu eta egitasmo desberdinen arteko gorabeherak ez diren beste zerbait-ek alderdien mahaiko eztabaidak eta akordioak ez baldintzatzen uztea alderdi politikoen erantzukizuna da. Bakearen mahaia abian jartzea ezinbestekoa den bereizkuntzarako mekanismoa izan daiteke, Anoetako adierazpenarekin uztargarria. Normalizazioko jar-dunbidearen bukaerarako berme demokratikotzat defenda daiteke erabaki hori.

3. HERRIARI GALDETZEKO ERAK ETA BALDINTZAK.

Herritarrei hitza eman. Elkarbizitzaren esparruaren funtsezko aldaketa egin nahi denean herritarrei iritzia eskatzea politikaren eta demokraziaren eskakizuna da Alderdirik gehien proposamen politikoetan hala jotzen da. EAren eta EB-Berdeekin batera hartutako akordioa eta Lehendakariak 2005eko ekainean kargu hartzeko hitzaldian berretsia bere-bere egiten du EAJ-PNVk. Hau da, Alderdien mahai-akordioa lortzen eta herri galdeketa burutzen eraginkor egingo duela lan ematen du hitza. Eginahalak joko ditugun jardunbidearen emaitza da, beraz, galdeketa. Ez da, inolaz ere, bestea muturrean joteko habailarria, ezta akordioa lantzeko eta lortzeko alderdiek duten erantzukizuna gizarteari egozteko aitzakia ere. Herritarrek beren nahia demokratikoki agertzea eragotziko duen uko-eskubiderik ere ezin dugu onartu.

Galdeketa baldintzak. Baldintza pila bete behar du galdeketa demokratikoak; bortizkeriarik eza eta bazterketarik eza dira guztien artean garrantzitsuenak. Argi eta garbi adierazi zuen Lehendakariak kargua hartzerakoan: “Normalizazio Politikorako eta Elkarbizitzarako Akordioa lortzen badugu, herritarrek berretsi eta onar dezaten, euskal gizarteari galdeketa egiteko baimena eskatuko diot Eusko Legebiltzarrari. Galdeketa hau, jakina, bortizkeriarik eta bazterketarik gabeko garaian egingo da”. Eta horrela jarraitu zuen: “Galdeketa berari dagozkion jokabide adostuak erantsiko zaizkio Legebiltzarraren baimenari. Adibidez, bortizkeriarik eta bazterketarik gabeko garaian egiteko baldintza, emaitzak onartzeko ezarritako irizpide demokratikoen onarpena eta beroriek ordenamendu juridikoan nola sartu negoziatzeko eta erabakitzeko jardunbide erabakigarria”. Kontsulta burutzeko baldintzak hitzartzea da urratsik onena haren zentzu integratzailea, emaitza ona eta ondorengo negoziazioaren bidegarritasuna segurtatzeko.

Gernikako Estatutuak lortu zuen atxikimendua baino handiago lor dezala galdeketa honek da gure helburua, Nafarroako Foru Hobekuntzarako ez zen eta erreferendumik egin¹⁰. Hori izango da elkarbizitza politikorako topagune berria demokratikoki balioztatzeko froga-harria, eta arragoa.

¹⁰ Iparraldeko euskaldunek ez dute beren erakunderik ere, nahiz eta beren Departamendurako eskabidea gehien gehien gogokoa izan



**TXOSTEN
POLITIKOAK.**

EUZKADI BURU BATZARRA.



TXOSTEN POLITIKOA.

EUZKADI BURU BATZARRA,
2000KO URTARRILAREN 15ETIK-16RA.

BAKEA.

1995eko Biltzar Orokorrean bakea lortzea gure lehentasun politikoetako bat bezalaageri zen.

“EAJk –zioen txosten politikoak– bere herriarentzat konponbide bat bilatu eta aurkitu behar du, ahalik eta lasterren, gatazka hau behin betiko gainditzeko eta bakealortzeko zuzenesten dituen bide guztiak aztertuz”.

Eta lehentasun hori ezarrita zegoen, ETari eta bere buruari ENAM deitzen zionari buruz agiri berean agertzen zen iritzi gogorra gorabehera edo, beharbada, beronengatik. Garai haietan eremu horretan Oidartzen txostena onetsia zen eta guztiaren eta guztien kontrako aktibismo gogorraren aldia hasia zen. EAJ ere “oinazea sozializatzeko” estrategiaren biktima izan zen. Hala ere, PPK eta beraren zinegotziek jasan zutendinamika horren azken aldian ekintza armatuaren presiorik mingarriena.

Lau urte pasatuta, egoera ezberdin-ezberdinean gaude, orduan amestu ere egingo ez genuen ergoeran.

Gaur egun argi bide dagoenez, “KAS Alternatiba”ren birformulazioaren ostean, 1995eko apirilko proposamenarekin, bere gobernu sozialistarenganako eta popularrarenganako elkarrizketa-eskaintzarekin, eta

“Euskal Herriari hitza emateko” azken formulazioaren ostean, **ETAk bere jarduera armatua ordeztzeko bide batbilatzen du, garaiekin batera bilakatzen jakin duten beste talde batzuen urratseijarraituz, bere estrategia militarren ordeztzeko prozesu demokratikoak jarritz.**

1997ko otsailean EAJk, Euzkadi Buru Batzarraren adierazpen publiko baten bitartez, zabalitzen zen etorkizun berria ikusita iragarri zuenez, *“...EAJ bakea lortzeko arriskatu eta mugitzeko prest dago, garena izateari utzi gabe, ehun urtetan osozehaztutako gure izate politikoarekin ezin batera daitezkeen estrategietara, taktiketaraedo lankidetzetara egokitu edo eraman gaitzaten utzi gabe. Hau da, ez dugu utziko ezdesbideratuko gure alternatiba ez gure estrategia politikoa”.*

Era berean, EAJk agiri hartan esan zuenez *“...Gurea bezain gaizkoatuta edo gaizkotuago dauden gatazkak berriro zuzentzen saiatzen diren nazioarteko besteesperientzia batzuk ikusita, beste talde politiko, sindikal eta sozial batzuekin harremanaketa ekimenak izan eta konpartituko ditugu, Euzkadin egun dagoen indarkeriazko dinamikarako konponbidea bideratzeko beharrezkoak direnak”.* *“Edozein kasutan –jarraitzen du testualki agiri hark–, EAJk eta Euskal Herriak bakea nahi dute. Eta EAJez da ziur egongo talde politiko batzuek hura aldarrikatzen duten beste gura dutela indarkeriaren arazoa hauteskunde-trafikitik eta botere-oposizio dialektikatik ateratzen dela argitasunez egiaztatzen ez den bitartean”.*

Milurteko berri baten ateetan, gure mendetako esperimentziarekin eta, bereziki, gure gizarte porositateak duen irazkotasun mailarekin, ziur gaude ETAren jarduera armatuaren bukaerara heldu garela. Eta 1997an esandakoa berretsiko dugu: ezen gure historiaren orrialde hau betiko pasa dadin arriskatzeko prest gaudela.

Oraindik ez dugu ulertzen alderdi batzuek bakea besterik gabe hel dadin mugitu gabe itzaroteko beren arduragabeko erabakiarekin eta baketzeko prozesuaren kontrakojarrerarekin antza denez lortu gura duten etekin politikoa.

Eta, era berean, **oraindik ez dugu ulertzen zergatik ez den konturatzen ETA, “Euskal Herriari hitza emateko” eskatzen duena, Euskal Herrian inork ez diolabere babesa eskatu gure etorkizuna askatasunez erabaki dezagun.**

Euskal gizarteak bere kabuz erabakitzeko beharrezko heldutasuna du. Euskal gizarteak ez du ETA behar. Are gehiago, ELA herriko sindikatu gehiengodunak esanzuen bezala, ETA “sobera dago eta oztopo da” euskal gizartean. Egin-eginean ere, “hitza emateko” pistolak lekuz kanpo daude. Legezketasunez hitz egiteko, herriaren laguntzabehar da, botoen euskarri demokratikoa dutenen laguntza. Eta ETAk ez du jaso bere historia luzean euskal hirtarren boto bat ere.

Ordua da herri honek legezketasun demokratikoz beren tesiak eta planteamenduakdefenda ditzaten hornitu dituen gizarte solasaldia aintzatetsi dezan.

Arriskatzeko prest gaude, bakea iristeko mugitzen jarraitzeko prest. Baina ez diogu inori utziko gure izate politikoarekin ezin batera daitezkeen estrategietara,taktiketara edo lankidetzetara eramaten.

ARDANZA PROPOSAMENA.

Gure ekintza publikoan eta gure agiri ofizial guztietan aldarrikatuta zegoen bakeabilatzeko xedez, Ardanza lehendakariak, Eusko Jaurlaritzako bere lehendakari-urteen bukaeratik hurbil, Ajuria-Eneko Itunaren 10. puntuaz gerotziko aurrerapenerakoproposamena idatzi zuen eta euskal alderdi guztiei aurkeztu zien. Bertan egokitu zituen Irlandako bakeprozesuko elementu erabakigarriak.

Oinarrizko laburpen gisa esanda, Ardanza proposamenak honako puntuok ditu:

- a)** “Elkarrizketa bidezko irtenbide” bati buruzko funtsezko akordio bat bultzatzea, baketzeko estrategia aktibo bat diseinatuz.
- b)** ETAk politikan “borroka armatu”aren bitartez esku hartzeari uztea eta harilaguntzen dion disidentzia politikoa (HB) sistema demokratikoaren jarduerapolitikoan behin betiko integratzea lortzeko eztabaida batez ari gara.
- c)** Ezin da aurretik ikusi ETA poliziaren ekintzarengatik bakarrik desagertuko denikezta bere bide armatua besterik gabe utziko duenik. Gauzak horrela, honako hauproposatu gura du:

- Hasiera batean egungo sistema juridiko-politikoan eragina izan dezakeen bukaera elkarrizketatua.
- Edozein elkarrizketa politiko erabakitzaileen aurretiko beharrezkoberroka-lagaketa, ETAREN aldetikoa.

Elkarrizketa politiko erabakitzailea:

- 1.** Aurreko baldintzarik gabe (Konstituzioa eta Estatutua edo Autodeterminazio-eskubidea).
- 2.** ETAk indarkeria mugarik gabe utzita, baketzeko eskaintza zehatzerakoerantzun bezala.
- 3.** Euskal hiritarren iritzia partaidetzarekin.
- 4.** ETA ez delarik solaskidea elkarriketa politiko erabakitzailean.

d) Solaskideak, hasiera batean, euskal gizartean ordezkatzeko duten alderdiak dira.

Era berean, prozesua alde aurretik honakoa adierazi beharko duten Estatuko dagokie:

- 1.** Erabakia euskal alderdi politikoen eskuetan utziko dutela.
- 2.** Euskal Erakundeetako haien erabakiak (Euskal Alderdienak) berenganatuko dituztela (Estatuko erakundeek).
- 3.** Haiekin beren antolamendu juridikorako inoizkako eransketa itundukodutela.

Ardanza lehendakariak 1997aren bukaeratik 1998ko udaberri arte egin etalandutako bakebide hau 1998ko martxoaren 17an Ajuria-Enean egindako bileran nabarmendu zen. Baketze-proposamen hori EAJK, EAK eta IUK onartu zuten; eta PPK etaberaren Gobernuak, PSE-PSOE eta UAK, atzera bota.

Madrilek ez du Ardanza proposamena onartu, beronen c)-1 eta d)-1 eta 2 puntuengatik bereziki.

LIZARRA – GARAZI.

Indarkeriaren garairik gorenek eta Ipar Irlandako pareko bake-prozesuak ETaren eta ENAMen baitan eragina izan zuten, oro har, eta euskal gizartearentzat erreferenteak izan ziren.

Ordurako, bakearen aldeko gizarte erakundeek eta alderdiek bultzatutako bilera etatopaketa asko ahalbidetuak ziren, hala nola, 1995eko martxoaren 12ko Bilbokoa, ELKARRI mugimenduaren bitartezkoa. Ildo horretatik, 1997an harreman sortu berriak hasiak ziren geroago espetxeratuko zen HBko Mahai Nazionalako ordezkariekin. Eragozpen horrek ez zuen garbitutako elkarrizketa-prozesua eten, eta "mahaikide"ak espetxeratu bezain laster sortutako Herri Batasuna taldeko Mahai Nazionalakizendatutako ordezkari berriekin elkarrizketak jarraitu ziren.

HBk ez zuen Ardanza proposamena bere egin. Hala ere, elkarrizketak zirela eta, horrelako erakundeen eta orduko lehendakariaren agiria onartu zuten hiru alderdien eta erakunde sindikalen artean (CC.OO eta UGT alde batera lagata) agiri bat itundu zen, Ardanzaren agiriarenaren antzeko filosofia zuena. Alabaina, Ardanzak bere erakunde-jarreratik Estatu espainiarreko erakunde-sailak aipaturik bazituen, Lizarrako Adierazpenak barnean sartzen du Frantses Estatuaren ere. Berari Lizarrako edo Lizarra-Garaziko agiria deitu zitzaion.

Irlandako bake-prozesua erraztu duten faktoreei buruzko sarrera bat ostean, agirian indarkeriaren azpiko arazo politikoa "jatorri eta izaera politikoko gatazka historiko" bezala definituta dago. Konpondu beharreko arazoak funtsean honakook dira:

- erabaki-subjektua,
- lurraldetasuna,
- subiranotasun politikoa.

Bertan elkarrizketa-prozesu bat bazterketarik gabe planteatuta dago, betigatazkaren indarkeri adierazpiderik gabe baina. Beraren helburua aldeetako ezeinek garaitzeko barik gatazka konpontzeko negoziazio globala da.

Euskal gizartearen aniztasunarekiko errespetuan proiektu guztiak lortzeko baldintza-berdintasunean aurkeztuko dira.

Euskal hiritarrek izan behar dute beren etorkizunari buruzko azken hitza.

Beraien erabakia bertan sartutako Estatuak errespetatu beharko dute.

Ardanzaren planteamenduek borroka larria eragin zuten, baina Lizarra-Garaziko Adierazpenak infernuaren gelaurrea izaten dirau. Borrokaren planteamenduak funtsean berdinak dira. Gobernuen amorruek daude, eta mediatikoak, eta lintxamendu masiboa. Izan ere, oraingoan, proposamenaren aldedago, HB eta ETA ezezik, Herriko gehiengo politikoa eta sindikala ere.

Lizarra-Garaziko Adierazpena ez da fronte abertzalea. Abertzaleak ez diren indar politikoa eta sozialak ere badaude bertan. Ez da independentzi proiektua ere, baizik eta elkarrizketa-mahai unionistei eta independentistei leku bat eman gurien eta azken erabakiak Euskal Herriaren eskuetan utzi gura dituen metodoa, gatazka konpontzekoa.

ETAREN SU-ETENA ETA PROPOSAMEN POLITIKOAK.

Lizarra-Garaziko Adierazpena 1998ko irailaren 12an sinatu zen. ETak irailaren 18az geroztik mugagabeko su-eten baten hasiera iragarri zuen, hau da, Adierazpena sinatu eta sei egunetara.

Azaldutako bake-prozesutik harago, ETak eta bere buruari Ezker Abertzaleadeitzen dionak “abiarazpideko Trantsizio berri bat” planteaturik dute. Estrategiapolitikoari buruzko beraien testuetan aipatuta dagoenez, *“dinamika egungo markoa utzi eta beste bat eratzean datzana izango da, marko berrian dauden baliabide guztiak alderantzikatuz, aurreko zatiketa-markoa kudeatu beharrean”*.

ETAren eta ENAMen historia luzean zehar, lurraldetasun, su-biranotasun eta autodeterminazio abiaburuak uztartuko dituen nazio-erakikuntzaren eredu bat egituratzen saiatu diren planteamendu erretoriko asko ezagutu ditugu.

Paperak formulazio teorikoaren edozein eredu jasaten du.

EAJko euskal jeltzaleontzat, dituela ehundik gora urtetatik, gure ekintzapolitikoaren helburua Euskal Herria izeneko berezko erki-degoa Euzkadi izeneko proiektu politiko berri bihurtzea da. Formulazio juridiko-politiko berri horrek euskal hiritar guztiak hartu behar ditu, Aturritik Ebrorainokoak, Agueratik Ezkarainokoak, Baionatik Gaubea-rainokoak, Turtzioztik Abiltaserainokoak eta Barkoxerainokoak.

Hortaz, **Euzkadi formulazio politiko globaltzat dugu, eta berak bertakohiritarren borondate aske eta subiranoa izan behar du oinarri. Premisa horrenpean, borondate eta atxikimendu aske eta pertsonalen gainean eraikitako Herriberri bat bururatu zaigu.**

Ezker Abertzale delakoak nazio-erakuntzarako bere alternatiba jendaurreratu beharko du. Oker ibiliko da, baldin eta, herri honen errealtatea aztertu eta dugun gizarte argazkia pragmatismoz ikusi beharrean, Euzkadiren kontzeptu globala ahultzen duten laborategiko esperimentuak planteatzen tematzen bada.

Ez da gutxietsi behar Ezker Abertzalearen gogo bizia eta irudimena. Gomutadaitkeen orduko hartan, lehenengo Eusko Legebiltzarra eta lehenengo Eusko Jaurilaritzaeratu berriak zirelarik, ETako zuzendaritzak EAJkoari ahoz proposatu zion erakunde horiek desegitea, Estatutu plebiszitatu berria eta Espainiako Konstituzioa salatzea eta elkarrekin joatea, “zeren eta elkarrekin joanez gero irabaziko baitugu”. Hori denborapasatuta ikusita, EAJ ez bide zen oker ibili, proposamen hori atzera botatzean. Hori dela eta, zuhurragoa izan behar du abertzale batentzat ausart eta erakargarriak diren baina ahalbide praktikoaren gutxienez hornituta beti egoten ez diren proiektuen eskaintzaberriak kontuan hartzerakoan.

PREMISAK ETA HELBURUAK. GIZARTE KOHESIOA.

EAJren posizio politikoa dela eta, Ardanza lehendakariaren 1998ko martxoaren 17ko proposamenaren inguruan eta EAJk 1998ko irailaren 12an izenpetutako Lizarra-Garaziko Adierazpenaren edukietan

azaldutako posizio hori dela eta, egun, **herri botoaren ordezkariak duten alderdi guztien elkarrizketa negoziazio politikokoprosesu bati ekin behar diogu.**

Adostasunerako oinarriak:

- Guztiok euskaldun sentitzen garela egiaztatzea.
- Euskal gizartearen aniztasunaren aintzatespena.
- Indarkeria agertzeko bide guztiak desagertzea. ETAren tregoa behin-betiko egitea.
- Distentsio eta humanizazio-keinueta sakontzea.
- Euskal Herria amankomuneko errealitate historiko, linguistiko eta kultural bezala aintzatestea.
- **Euskal gizartean dauden proiektu politikoak lortzeko bide politikoak eta demokratikoak onartzea, zertarako eta ezarpenetik barik atxikimendu asketik elkarbizitza politikoko proiektu bat iristeko.**
- Euskal hiritarren borondate libre eta demokratikoki adierazia guztiokonartzea.

HELBURUA:

Oinarri gainean, gai batzuetan akordioak iristea. Gai horiek honakook dira: lurraldetasuna, nazio-nortasuna, subiranotasuna, marko politikoa, ...

EUSKAL GIZARTEAK BERE ETORKIZUNA ERABAKITZEKO IZAN BEHAR DUEN ESKUBIDEA.

EAJk defendatzen duen oinarriko ideia euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko izan behar duen eskubidearena da.

Euskal Herriak eta, zehazki, bertako hiritarrek hartu behar dute gaur egunberen etorkizun politikoari eta hura zatituta dagoen espainiar eta frantses Estatuetik beren harreman politikoen egituraketari buruzko erabakia.

Euskal hiritarrari bakarrik dagokio bere etorkizuna erabakitzea. Bera defendatzen dugun abiaburu bat da. Izan ere, gure ustez, bera pentsamendu eta aukera politikaribegirako askatasunean inplizituki dago.

Hau da Eusko Legebiltzarrak Autodeterminazio-eskubideari buruz 1990eko otsailean egindako adierazpenaren alderdi nagusia.

Horren ondorioz,

- Euskal Herriaren izan eta erabakitzeko ahalmenetik, EAJk Euzkadirennazio-aintzatespenerako helburua berretsi gura du. Izan ere, Euskal Herriak, bere historiaren protagonista izaki, beharrezko eta egokitzathartzen duen estatus politiko eta juridikoa ezartzeko aukera izan behardu.

- **EAJk autogobernu global, oso eta nortasun bereziz hornituaren garapen politiko eta soziala sakondu eta zehaztuko du. Horretarako, beharrezkoak diren ekintza politiko, sozial eta instituzionalak sustatukoditu nazioari begira.**

- **Euskal Herriaren autogobernu politiko bereziko eskubidearen legitimitate historiko eta politikotik, EAJk euskal gizartea bultzatu gura du, berau bera ukituko duten erabakien protagonista den aldetik, baibarneko egituraketa bai kanpoko harremana zehazten dituen proiektu politiko baten diseinuan parte hartzera. Horretarako, Euskal Herriak, egungo une historikoan, datozen hamarkadetarako behar dituen botere-taldea eta estatus politikoa ezarri beharra dago.**

IZAN ERABAKITZEKO.

EUSKAL GIZARTEAK BERE ETORKIZUNA ERABAKITZEKO DUEN ESKUBIDEA.

Euskal Herria da bere etorkizun politikoari buruz, hala nola, Estatu espainiar nahiz frantsesarekin izan beharreko harreman politikoei buruz har ditzakeen erabakien jabe.

Bere etorkizuna erabakitzea Euskal Herriari dagokiola dion printzipioa, kontutan izanik estatu espainiarraren ordenamendu juridikoak berak ere eskaintzen digun herri izaera ukazina (nahiz eta lurralde-mugak eztabaidagarriak izan), pentsamendu eta aukera politikoaren askatasunetik ondoriozta daiteke, eta 1990eko otsailan Eusko Legebiltzarrean Autodeterminazio Eskubideari buruz plazaratu zuen agiriaren erdigunea dugu.

Beraz,

- Euskal Herriak **izateko eta erabakitze**ko duen ahalmenetik abiatuta, Euzkadiren onarpen nazionalaren helburua defendatzen dugu, Euskal Herriak, bere historiaren protagonista den neurrian, beharrezko eta egoki ikusten duen status politiko eta juridikoa ezarri ahal izan dezan.

- Autogobernu integral, oso eta berezkoaren garapen politiko eta sozialaren aldeko apustua egiten dugu, nazio ikuspegitik ekimen politiko, sozial eta instituzionalak bultzatuko ditugularik.

- Euskal Herriak bere status politiko propioa izateko duen legitimitasun historiko eta politikotik abiatuta, euskal gizartea bere erabakien protagonista delarik, bere barne egituraketa, hala nola kanpo harremanak zehaztuko dituen egitasmu politikoaren diseinuan eraginkorki parte har dezan baldintza egokiak sustatu behar ditugu, datozen hamarkadetarako Euskal Herriak behar duen status politikoa eta botere koadroa ezarriz, bizi dugun une historiko honetan.

EAJ –PNV, bere sorrerako printzipioekin, hala nola, giza eskubide indibidual eta kolektiboak defendatzen jorratu duen ibilbidearekin koherentea izanik, indarrean dauden errealitate politiko eta marko juridikoetatik abiatzen da eta, biak kontutan hartzen ditugularik – errealitatea eta markoak -, euskaldun guztiok barne bilduko dituen esparru juridiko politiko baten aldeko apustu garbia egiten du. Esparru honetan bere izaera nazionala, bere errealitate historikoa, kulturala eta linguistikoa errespetatuak izan beharko dute, eta baita ere bere etorkizuna finkatzeko eskubidea, eta neurri berean barne egituraketa eta kanpo harremanak zehazteko gaitasuna.

ELKARBIZITZA POLITIKOAREN BEHIN BETIKO NORMALIZAZIORA BIDERATUA DAGOEN PROZESU POLITIKOA.

Aipatutako printzipioak praktika politikora eraman ahal izateko, **bidezkoa da prozesu politiko bat hasi eta garatzea**. Prozesu politiko honek bere oinarria Euskal Herriaren izatearen onarpenean izango du, alegia, **izatearen onarpena, erabaki ahal izateko**, eta bere **helburua elkarbizitza politikoaren behin betiko normalizazioa lortzea** izango da, behar bezainbesteko gizarte-kohesioaren bidez. Horregatik, prozesuaren giltzarria euskal gizartearen baitan kokatzen dugu, alegia, libreki osatu eta adierazitako bere borondatean.

Prozesu politiko modura, ezagutzen dugun egoera politikotik abiatuz, euskal gizarteak bere etorkizunerako ezarriko duen beste egoera politiko batera joango da. Eta kontutan izan behar dugu, une honetan daukagun egoera eta 70eko hamarkadaren amaierako trantsizioan izandakoa desberdinak direla guztiz. Garai hartan Euskal Herriaren esistentzia beraren ukapen borobila bizi genuen; diktaduraren ondorio ziren presio politiko, sozial, ekonomiko eta militarrek ere bizi-bizi ziren, erreferentzia instituzional propiorik ez genuela ahaztu gabe. Prozesu politiko hau lurralde mailan ezarpen desberdina duen, baina sustraitua dagoen nortasun politikoaren kontzientziatik abiatuta garatzen dugu; ekimen politiko zuzenduko duten eta hiritarrendandik gertu dauden erakunde propioetatik, eta ekimen publikorako botere oinarri garrantzitsu batetik abiatuta, lurralde nahiz populazioaren zati nagusian.

Oinarri hauetatik abiaturik, abertzale modura zilegitasun osoz lortu nahi dugun Euzkadiren nortasun nazionalaren onarpena gure herriaren historian inoiz baino eskurago dago.

ABIAPUNTU MODURA DAUKAGUN EGOERA POLITIKOA.

Hauek dira egoera politikoaren ezaugarri nagusiak:

- Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan autogobernu ahalmen handiko marko instituzionalak egon badaude, Gernikako Estatutuaren eta Amejoramentuan jasotako autonomia sistemaren fruitu. Errealitate hauez gain, berezitasun politiko garrantzitsua osatzen duen ezaugarri bat dugu, alegia, 1978ko Espainiar Konstituzioa baino lehenagokoa den eskubide propio eta lehenagokoak dituen subjektu kolektiboaren onarpena, Xedapen Gehigarrien konbinazioaren eskutik datorrena.

EAJ-PNVk ez du errespetu hutsa mantentzen errealitate politiko horiekiko, oso bestalde, euren ezarpen eta garapenean paper nagusia izan du, euskal hiritar guztiei eskainiriko politika publiko aurreratuak bermatzen dituzten gobernu ardurak bereganatu dituelarik.

- Erakunde sarea eta autogobernu ahalmena egon badaudelarik, hauen garapena oso ezberdina da Euskal Herrian. Politika instituzionalaren eboluzioa eta autogobernuaren garapenaren maila desberdina da Euskal Erkidego Autonomoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, Iparraldeko lurraldeetan (Baxe-Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoako 159 udalerrietan) antzeko ordezkari instituzionalik ez dagoelarik.

- Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hiritarren arteko euskal nazio kontzientziaren ezartzearen eta hedapenaren maila ezberdina da.

PROZESU POLITIKOAREN GILTZARRIAK.

Garatu beharreko prozesu politikoaren oinarrian dauden funtsezko kontzeptuak hauek dira:

- **SUBIRANOTASUNA.** Helburua marko politiko eta juridiko bat finkatzea da, non **Euskal Herriaren subjektu kolektiboak bere osotasunean izango duen egiaztatua eta zehaztua bere etorkizun politikoa erabaki ahal izateko eskubide osoa: autodeterminazio eskubidearen onarpena** eta beronen sendotzea, ondorioztatzen den ordenamendu juridikoaren gailurra osatzen duten oinarritzko testu politikoetan.

- **LURRALDEITASUNA.** Aniztasun instituzionalaz gain eta, era berean, espainiar eta frantziar sistema konstituzionalengandik ondorioztatzen diren zailtasunez gain, zalantzarik ez dago **Euskal Herria, sustrai historiko, kultural, linguistiko eta sozial sakonak dituen komunitate ukaezin modura definitzen dela.**

Lurraldetasunaren kontzeptua honela ulertzen dugu guk, alegia, zazpi lurraldeetan nazio kontzientziaren garapen neurri ezberdina, euren erabaki ahalmena eta atxikimendu askea errespetatuz, **guztiok burutzeko konpromezua hartzen dugun prozesu politikoaren emaitzak ondoko hau suposatuko duela: guztiok, hiritar eta lurraldeok, Euskal Herriaren subjektu politikoaren partaide izateko aukera izango dutela**, oztopoak mugitu eta gaindituz, eta eskubide hori bete ahal izateko baldintza juridiko – politikoak sortuz.

Prozesu politikoaren lurralde osagaia, horrela ulerturik, egun existitzen ez den, baina Euskal Herriaren Eskubide Historikoen onarpen eta bermearengandik zuzen zuzenean ondoriozta daitekeen aukera konstituzional bat sortzea litzateke. Aukera honen arabera, **euskal komunitate sozio – kulturalaren partaide izateak, subjektu politiko bati dagozkion eskubide politiko kolektiboen onarpena ere ekar dezake berarekin, baldin eta hori baldin bada hiritarren borondatea.**

- **GIZARTEA.** Herri bat eta nazio kontzientzia bat ez dira sortzen egitura instituzional bat ezartze soilaren bidez. Erakundeak, nazio izaera daukatenak barne, euskaldunen ordezkari gorenak direlarik, herriak heldutasun politikoa iritsi duenaren seinale dira, alegia, ingurukoengandik bereizita den nazio kontzientzia amankomunaren jabe dela. Beraz, oinarritzko osagaiak, **nazio kontzientziaren hedapena eta baiezipena dira (izatearen aldeko apustua) Euskal Herri osoko hiritarren gan.**

Horregatik, prozesu politiko honen ondorioz **garatu behar den ekimen politikoa** Euskal Herri osoan eztabaidatu behar da, nahiz eta onartuak izan behar diren, eta kontutan hartuak, **berau osatzen duten lurralde ezberdinetako errealitate eta egoera politiko ezberdinak**, zeren, hori egingo ez balitz, gure gizartearen egiazko ahotsa ukatua izango bailitzateke.

Prozesua, horrela, alde batetik, Euskal Herria Nazio bat dela, eta horregatik eskubide politikoaren jabe dela baieztetik abiatzen da eta, bestetik, egungo errealitate instituzionalak ezberdinak direla baieztetik, euskal gizartearen dauden nortasunen aniztasuna aherentzi gabe. **Baiezipen nazionala, egituraketa instituzionalaren aniztasuna eta nortasunen aniztasuna bezain errealak da. Gure egitasmo politikoa printzipio horien bilkuran oinarritzen da, batzuek besteei aurre hartu gabe.**

PROZESUAREN ZIMENDUAK.

Elkarbizitza politikoaren normalkuntza, gure ikuspegiaren araberak, zimendu edo aurrepostu hauetatik abiatu behar da:

- **Bakea.** Edozein ekimen politikoren aurretik, edozein aldeko bortizkeria eta bortxa edo mehatxu era guztiak desagertu egin behar dira behin betirako. Ezin zaio tamaina honetako prozesu politiko bati heldu, pertsona guztien giza eskubideen errespetu osoa mantendu gabe. Eta hori, bai bide politiko eta demokratikoen aldeko apustuaren eskutik doan ikuspegi etikoarengatik, eta baita prozesu beraren legitimitasunarengatik ere. Bakezko eszenategi oso baten eskutik soilik eraiki ahal izango dugu Euskal Herriaren etorkizuna, askatasun eta atxikipen askearen gain.

- **Euskal Herriaren onarpen eta sendotzea, nortasun propioa duen eta bere etorkizun politikoa erabakitzeke gaitasuna duen subjektu modura.**

- **Euskal Herriaren lurralde osotasunaren onarpena,** subjektu politikoaren oinarri fisiko modura, printzipio hau lehenago aztertu den erara ulertzen delarik, alegia, Euskal Herriko lurralde ezberdinek egun, bai gizarte mailan eta baita erakunde mailan bizi duten egoera anitza errespetatuz.

- **Lurralde osotasuna prozesuaren oinarri politiko bat izan behar da,** eta abertzaleek sustatu behar duten politikak lurralde osotasunaren kontzientzia, berau ahulen dagoen tokian pizteko helburua izan behar du. Baina, dena dela, lurralde osotasun kontzientzia hori, lurralde arteko berdintasun politikoaren ikuspegitik aurkeztu eta ulertu behar da; borondatezko elkartzetik, eta ez absortziotik.

- Eta, baldintza horiek sustatzeko, **Euskal Herria osatzen duten lurraldeen arteko harreman politiko eta instituzionalen inguruko mailak ipintzeko ahalegina egingo da,** Estatu espainiar nahiz frantsesean, hala nola, Estatutu eta Amejoramentuan indarrean dauden oztopo juridiko – politikoak gaindituz.

- **Euskal gizartearen nortasunaren aniztasunaren onarpena,** bertan oso kontzientzia nazional ezberdinak baitaude, lurraldez lurralde ezarpen oso ezberdinez gainera.

- **Tresna demokratiko soilak erabiltzea,** guztiok onartuko ditugularik (euskaldunek, espainiarrek, frantsesek, hala nola, bakoitzaren erakunde eta botereek), euskal gizarteak libreki eta demokratikoki ematen duen hitza.

- **Elkarbizitza politikoaren hedapena euskaldunen atxikipen askearen bitartez.**



TXOSTEN POLITIKOA.

EUZKADI BURU BATZARRA,
2004KO URTARRILAREN 17TIK-18RA.

1. IRAGAN HURBILA: EGOERA POLITIKOAREN BILAKAERA 1998TIK.

Ibarretxe lehendakariaren Proposamena ez da Lehendakariak Euskadikoa bezalako egoera zailari eta “gordiarri” irtenbidea aurkitzeko egin den lehenengo ahalegin serioa.

Era berean, “Lizarra” ulertzeko, beharrezkoa da Ardanza lehendakariaren ahaleginak aintzat hartzea; izan ere, kargua utzi baino apur bat lehenago, esfortzu handia egin zuen Ajuria-Eneko itun zaharkituari eta geldituari irtenbidea emateko.

2000ko Batzar Nagusian onetsitako txosten politikoan, ekimen hori gogoratu eta laburbildu genuen.

Ardanza lehendakariak berak landu zuen bere proposamena. Berak eraman eta irakurri egin zuen; lehenengo eta behin, Mahaiko kideei, eta gero, Aznarri, garai hartan Barne Ministroa izandako Mayor Orejaren aurrean. Proposamena eman eta PSOEko Idazkari Nagusiarekin eta Izquierda Unidako Koordinatzaile Nagusiarekin komentatu zuen. Azken hori izan zen, hala ere, proposamena aintzat hartu zuen bakarra.

Ardanza lehendakariak 1997aren amaieratik 1998ko udaberriaren hasierara arte landutako baketze-bide hau, bestalde, Ajuria-

Enean 1998ko matxoaren 17an egindako bilkuran heldu zen goreneko unera. EAJ-PNV, EA eta EBko ordezkariak onartu eta PP, PSE-PSOE zein UAKo ordezkariak ukatu egin zuten.

Madriilen inolako alternatibarik aurkeztu gabe ukatu ondoren, Ajuria-Eneko mahaia hilda gelditu zen, 10 urteko lana egin ondoren. EAJ-PNV, EA eta EB alderdiek arazoa konpontzeko beste bide bati hasiera eman eta, horrela, “Lizarrako Adierazpena” iritsi zen, gaur egunera arte PPren eta, horrenbestez, PSOEn “piztia beltza” den adierazpena.

1.1. SU-ETENAREN ETA LIZARRAKO ADIERAZPENAREN IRAKURKERA KRITIKOA.

Lizarrako Adierazpena sinatuta eta ETAK 1998ko irailean su-etena eginda, aukera historikoa sortu zen geure herrian, Euskal Herriko gatazka politikoa Irlandako bake prozesuaren antzeko parametroetan jartzeko. Hala eta guztiz ere, itxaropena horrek 18 hilabetetan soilik iraun zuen bizirik. ETAK su-etenen amaiera jakinarazi (1999ko azaroan) eta su-etenen osteko lehenengo atentatu hilgarria egin zuen, 2000ko urtarrilean. Gaur egun, oraindik ere egin gabe dago aldi horretan gertatutakoari eta batzuek nahiz besteek izandako eginkizunari buruzko azterketa zorrotza, kritikoa eta autokritikoa. Izan ere, denon arteko azterketa beharrezkoa da, demagogiarik gabeko azterketa, orduko akats berberak ez errepikatzeko, baldin eta bakerako aukera berririk sortzen bada. Su-etena, Lizarrako Adierazpena eta bertako Foroaren kudeaketa inflexioko gunea eta alferrik galdutako aukera izan ziren; aukera hori galtzea eragin zuten faktoreak hiru erantzukizun-multzotan banatzeko modukoak dira: lehenengo eta behin, ETARI eta EHNAM deritzonari dagokiona; gero Espainiako gobernuari, PPri eta PSOERI dagokiena, eta azkenik, Lizarrako Foroko Batzorde Iraunkorreko alderdi eta erakundeoi dagokiguna.

1.1.1. ETA ETA EHNAM.

Lizarrako Adierazpenaren eta eraikitzen ari ziren erabaki- nahiz aldaketa-prozesuen aukerak ezeztatu zituen faktore nagusia, erabakigarria eta atzeraezina, izatez ere, ETAK su-etena apurtzeko hartutako erabakia izan zen. Jatorrian, arazoa ETAK prozesuaren ebaluatzailetzat bere buruari eratzikitzen dion eginkizunean kokatzen da; izan ere, ekintza politikoa ikuskapen militarren menpe jarri eta HB/EH/Batasunaren gidaritzako politikorako aukera guztiak desegin zituen. Etorkizunean antzeko prozesurik sortuz gero, erabaki-eremu zibil eta politiko soila bermatu behar da.

ETAren jokabideak, jarduerak edo ekintzen logika ez dira ulergarriak, indarkeriarekin lotuta jarduten ez dutenez. Atentaturik gabe, zoritxarrez Kale Borrokako episodioak egon arren, argi gelditu zen herri honek, ezta “ezker abertzalea” izenarekin ezagutzen denaren barruko gehiengoak ere, ez duela logika hori ulertzen eta logika horren aurka dagoela. ETA bezalako talde bat herri baten beso armatutzat eratzen denean, herri horrek nahi eta eskatu barik, ageri-agerian gelditzen da ETA lekuz kanpo dagoela, askatu nahi omen duen herriaren testuinguruan.

ETAK su-etena apurtzearen ondorioz, hilketa izugarriak egin eta euskal gizarte osoa mehatxupean gelditu da; horrek, gainera, geure gizarteak bere arazoak konpontzeko duen gaitasunarekiko mesprezua utzi du agerian, eta abertzale guztion arteko lankidetzako politikoa oztopatu du.

Su-etena apurtzearen beste ondorio zuzenatariko bat, bestalde, bake-prozesuaren aurkako jarrerarik gogorrena izan duten alderdiak eta arduradun politikoak indartzea izan da; horiek oso erasokorrak dira abertzaleekin eta geure gizartearen nortasuna egituratzen duten ikurrekin. Izan ere, abertzaletasunari ideologiatzat ospe txarra eman eta berorri etikaren aldetik legitimitatea kendu nahi izan diote.

ETAk (ekintza bakartiko eta alde bakarreko ETA) su-etena apurtu eta jendea hil zuen berriro; horrela, bide politikoak eta demokratikoak soilik erabiltzeko konpromiso publikoa hartuta zeukan HB/EH/Batasuna bezalako erakundea eskema politiko-militarrerantz eramane zuten nahitaez. HB/EH/Batasunak iruzur politikoa egiteaz gain, era askotako ekimenetan sartu ditu bere hautesleak, bere oinarri soziala, berari laguntzen dioten guztiak, baita euskal gizarte osoa ere.

1.1.2. ESPAINIAKO GOBERNUA, PP ETA PSOE.

Prozesuaren beste oztopo nagusienatariko bat PPren Gobernuaren inobilismoa izan zen, baita oztopoak jartzeko joera ere. Hasierako zalantzen ostean (gogoratu “Presidentearen gizonak” ETAREN zuzendaritzarekin egindako bilera), Aznarrek eta PPk ez zuten berenganatu nahi izan, Tony Blairrek Ipar Irlandan izandako eginkizun historikoa, eta lubakia jarri zuten, abertzaleon aurkako demagogian (hauteskondeekin lotutakoa) oinarrituz. PSOEek, bestalde, PPrekiko erabateko otzantasuna izan zuen. Aldi horretako urritasunik handienatarikoa sozialistek politika independenterik ez egitea izan zen. Halaber, agerian gelditu zen Espainiako gobernuak komunikabideetan zeukan indar ikaragarria.

Komunikabide nagusiek PPren zerbitzuan jardun zuten eta irekitako prozesuarekiko eginkizun suntsikorra izan zuten. Gatazka konpontzeko sor daitekeen edozein prozesuren erronka nagusienatarikoa, izatez ere, indar politikorik eta komunikabiderik gehienek horren aldeko lan emankorra egitea izango da.

Gaur egun, badakigu Aznarren eta PPren gobernuak ez dutela horren aldeko ekimenik edo lankidetzarik garatuko; landuko duten bide bakarra indarrarena, gatazkarena eta erasokortasunarena izango da, euren planteamenduak onartzen ez dituzten guztien aurka. Horrexegatik urrundu ginen Aznarren eta PPren gobernutik, hau da, arazoaren azterketan eta diagnostikoan inondik inora ere ados ez geundelako eta, horrenbestez, soluzio-bideetan ere ados jartzen ez ginelako. EAJ-PNVri ospe txarra emateko eta ETArekin identifikatzeko politikaren eragilea horixe izan da: geure planteamendu ideologikoak eta helburu politikoak aldatzeko eskatu digute.

1.1.3. LIZARRAKO FOROKO KIDEAK.

Bakea lortzeko konpromiso sakonarekiko koherentzian, geure Alderdia, euskal gizartearen zatirik handienaren kasuan bezala, guztiz inplikatu zen Lizarrako Adierazpena sinatu eta ETAk su-etena egin osteko dinamikan.

Hala eta guztiz ere, hasierako itxaropenak handiak izan arren, Lizarrako eremuak ia ez zuten aukerarik izan ekimena aurrera eramateko, eta defentsiban jokatu behar izan zuen. Arrazoi asko egon zen horretarako. Lehenengo eta behin, elkarrekin lan egiteko ohiturarik ez duten eta, batzuetan, elkarren aurka egon diren alderdien, sindikatuen eta mugimendu sozialen ar-

teko estrategia bateratua aurrera eramatea ez da erraza. Beste alde batetik, urtebete eta erditan, hiru hauteskunde-prozesu egon ziren, eta aldiok itxuragabetze handia sortzen dute. Era berean, indar politikoek egindako azterketak sarritan ez ziren bat etortzen. Halaber, indar guztien barruan ere ez dira diagnostiko erregularrak egon; zenbait kasutan, azterketak aldagarriak izan dira, edo luzatu egin dira, hauteskundeak igaro arte. Indar politiko guztiek, inolako salbuespenik gabe, sentsibilitate desberdinak izan zituzten euren barruan, eta horrek erabaki hartzeak oztopatu zituen. Horren ondorioz, prozesuaren kudeaketan parte hartu zuten indarrek ez zuten beharrezko baliabide guztiak jarri, lankidetzaren politika erregulartasunez garatzeko.

Komunikabideek eta politikariek Lizarraren aurka egindako eraso etengabeek ez zuten neurriko erantzun egokirik izan. Espetxe-politikak frustrazioa eta eszeptizismoa sortu zuen, emaitzarik ez ikustean prozesuarekiko ilusioa galtzen ari ziren sektoreetan. “Kale-borroka” ia etengabea izan zen, eta horrek oztopatu, neutralizatu eta moteldu egin zuen alderdien arteko lankidetzaren. Komunikabide askok fenomeno horrek sorturiko eragina erabili zuten, egiten ari ginen esfortzuari sinesgarritasuna eta egiatasuna kentzeko. Arrazoi horien eta antzeko beste batzuen eraginez, Lizarra gertaeren atzetik joan zen, bere burua etengabe defendatu nahian. Lizarrako ekimenek, esate baterako, Udalbiltzak, EHrekiko lankidetzaren hitzarmenak (Legebiltzarrean) edo Baterak, ez zuten euren berezko dinamika garatzeko astirik eta aukerarik izan. Horren ondorioz, su-etenaren garaian prozesua ezin izan zen behar bezala garatu.

Hala eta guztiz ere, prozesu desberdinak antolaketa eta kudeaketa bereizirik gabe nahasteak egin zuen kalterik handiena, su-etenaren garaian sorturiko prozesuan. Gatazka politikoaren konponbidea, eraikuntza nazionala eta indarreko erakundeen leuntzea edo gobernagarritasuna elkarrekin lotuta daude, baina izatez gauza desberdinak dira. Lizarran egindako akats nagusia, izan ere, aldi berean eta publikoki bi helburu lortu nahi izatea izan zen: batetik, indar abertzaleen arteko eraikuntza nazionalerako proiektua garatzea; bestetik, gizartearen eta gainerako alderdi politikoei gatazka elkarriketaren bidez eta guztion artean konpontzeko metodologia eskaintzea.

Norberaren akatsen eta prozesuaren aurkakoei egindako “asmatzeen” eraginez, eraikuntza nazionalari buruzko diskurtsoa nagusitu egin zitzaion gatazka denon artean konpondu beharri buruzko diskurtsoari, eta azken hori baztertuta gelditu zen. Horrek ondorio kaltegarriak izan zituen, mesede egin baitzion Lizarraren aurkako demagogiari, eta gainera, gizartearen zati handi batean nahastea eragin zuen; izan ere, zalantzak sortu ziren prozesuaren helburuari buruz: arazoak konpondu ala abertzaleen aldeko hobariak atera.

1.2. SU-ETENA APURTU ETA LAU URTE GEROAGO.

1.2.1. LIZARRAREN OSTEKO ESZENATOKI POLITIKOA.

ETAk su etena apurtu zuenetik (1999aren amaieran), hiru estrategia dituen eszenatokia sortu da:

- *ETAk elkarrizketa eta politika indarkeriaren eta mehatxuen menpe jartzeko duen estrategia.*

Estrategia honen ezaugarri nagusia oinazea mugarik gabe hedatzea da, hain zuzen ere, ezker abertzalearen ezeztatze zibilak eta politikoak adierazten duen oinazea; horrek agerian jartzen du gizartearekiko eta errealitatearekiko urruntze oso larria. Horren ondorioz, zatiketak egon dira, aurrekorik gabeko babes-galtzea egon da (gizartean eta hauteskundeetan) eta euren proiektua ahuldu egin da. “Borroka armatua” PPren gobernuak bere estrategia justifikatzeko duen aitzakiarik onena da gaur egun.

- *Abertzaleon eta Euskadiko erakundeen aurkako estrategia. PPren gobernuak gidaturiko Terrorismoaren aurkako Itunak “elkarrizketaren kontra” duen estrategia.*

Estrategia horren ardatza abertzaletasunaren eta Euskadiko erakundeen aurka eraso gogorra egitea da, baita elkarrizketarako aukera guztiak ukatzea ere. PPren gobernuak ETA eta EHNAM erabiltzen ditu, borroka horren ardatzat.

Estrategia horren ezaugarri nagusiak alde bakarrekoa eta autoritarioa izatea da; PPren gobernuak gidatzen du, Terrorismoaren aurkako Itunaren bitartez, komunikabideen laguntzarekin eta sozialisten otzantasanarekin. Estrategia horren ondorio nagusiak atzerakada demokratiko oso larria, aginte-banaketaren printzipioa apurtzea eta bermeen sistema haustea izan dira. Horren emaitzarik nabarmenenak alderdiak legez kanpo uztea eta egunkariak ixtea izan dira.

- *Gehiengo sozialak garaturiko “Elkarrizketaren aldeko eta indarkeriaren aurkako” estrategia, hirukoak garatu eta gidatzen duena.*

Estrategia hori, berriz, Lehendakariak 2001eko otsailaren 8an proposaturiko “Kursaaleko Printzipioetako” lau puntuetan zehaztuta dago: giza eskubideei bai, elkarrizketari bai, euskal gizartearen nahari bai eta eraikuntza sozialari bai. 2001eko maiatzaren 13ko eta 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeen emaitzek abalatu egin dute estrategia hori; horren ondorioz, hiruko gobernu sortu eta Lehendakariaren Proposamena aurkeztu da.

1.2.2. AZKEN LAU URTEOTAKO GERTAERA NAGUSIAK, GIZARTE-PRONUNTZIAMENDUAK ETA GIDARITZA POLITIKOA.

Euskadiko azken lau urteotako panorama politikoan eraginik handiena izan duten gertaerak honako hauek dira:

ETAren atentatuak.

PPren gehiengo osoa. Terrorismoaren aurkako Ituna.

2001eko maiatzaren 13ko hauteskunde autonomikoak.

2001eko irailaren 11ko atentatuak eta ondorengo gertaerak.

Alderdi Politikoen Lege Organikoa eta horren eraginezko ilegalizazioak: Batasuna, AuB, Udalbiltza (SA)...

Egunkariaren itxiera eta euskararen munduaren aurkako erasoak.

Irakeko gerra eta gerraostea.

Iparraldeko 2001eko udal-hauteskundeak eta kantonamenduetakoak, eta Hegoaldeko 2003ko hauteskundeak (udal-eta foru-hauteskundeak).

Legebiltzarraren aurkako eraso politiko-judiziala.

Hegoaldean, gizartearen barruko gehiengoaren pronuntziamenduak zalantzarik gabeak izan dira: ETari Ez, alderdien ilegalizazioei Ez eta egunkariak ixteari Ez. Gizarteak hautestontzietan, inkestetan edo mobilizazioetan iritziak emateko aukera izan duenean ere argi hitz egin du, eta berriro ere Baietz esan dio indarkeriarik gabeko, elkarrizketako, bazterkeriarik gabeko eta erabaki-askatasuneko proiektuari, euskal gizarte osoarentzako proiektuari.

Aldi horretan, EAJ-PNV aipaturiko gertaera guztietako joera sozial nagusiekin batera egon da, horien gidaritza eraginkorra eginez. Horrenbestez, ebaluazio positiboa egin dezakegu, aldi konplexu eta gogor horretan izandako eginkizunari buruz.

2. ORAINA: EUSKAL HERRIKO GIZARTEA BLOKEATZEN DUTEN FAKTORE NAGUSIAK.

2.1. INDARKERIA, MEHATXUA ETA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA.

Larritasunik eta premiarik handiena duten elementuak, zalantzarik gabe, bizitzaren aurkako atentatuak eta ETaren mehatxupean daudenen egoera da. Indarkeriaren amaiera, mehatxuen bukaera eta biktima guztiekiko elkartasun aktiboa lehentasunezkoak dira, giza eskubideekiko konpromisoaren ikuspegitik begiratuta.

Pertsonaren duintasunarekiko konpromiso hori koherentea eta salbuespenik gabea izan behar da, eta geure gizarteak ere horrelaxe ulertzen du. Horrenbestez, espetxean eta atxilotuta dauden pertsonen giza eskubideen defentsa ere (defentsarik ezari, sakabanaketari eta tortura-salaketei dagokienez) lehentasunezkoa izango da.

Giza eskubideen urraketa blokeo politikoaren eragile nagusienetakoa da: horrek euskal gizartean eta egoera politikoan duen eragina ondoen adierazten duten hitzak “atsekabe” eta “adoregabetze” dira, eta horrela, gizarteak itxaropena galtzen du bakean eta geure herriko normalizazio politikorako nahiz sozialerako aukeretan.

Zenbait taldek oinazea politikoki erabiltzeko kanpainak egin arren, indarkeriaren eta sufrimenduaren biktima guztiekiko elkartasuna eta hurbiltasuna berretsi nahi ditugu.

2.2. GATAZKA POLITIKOAREN BLOKEOA.

Oraingo egoera politikoak 25 urtetik gorako apurka-apurkako narriaduraren eraginezkoa da, eta hori Euskal Herriaren historia hurbila bakarrik hartuta kontuan. Espainiako Trantsizioko baldintza faktikoen eraginez, konstituzio-prozesua ezin izan zen adostasun egokiarekin egin. Prozesu horrek bertatik kanpo utzi zuen Euskal Herriaren zatirik handie-

na. Gernikako Estatutua ez da bete eta balioa galdu du; gainera, Euskal Herriaren eta Espainiako estatuaren arteko gatazka politikoa oraindik ere konpondu barik dago. Ajuria-Eneko ituna, Aljerreko elkarrizketak, Ardanzaren proposamena, Lizarrako Adierazpena eta beste ekimen sozial batzuk alferrik galdutako aukerak izan dira. ETaren indarkeriak eta PPren gehiengo osoaren agintekeriak (elkarrizketa demokratikorako aukera ukatuz) sakondu eta larriagotu egin dute blokeoa.

Euskal gizartean eta egoera politikoan pilaturiko blokeo horren eraginez, frustrazioa eta nekea nagusitu dira, eta horrela, gizarteak politikan eta herri honen etorkizunean sinesteari uzteko arriskua dago.

Lehendakariaren proposamenak, testuinguru horretan, itxaropena eta egoera gainditzeko benetako aukera ekarri ditu.

2.3. ATZERAKADA DEMOKRATIKOA.

Alderdi Popularraren gobernuak gidaturiko atzerakada demokratikoaren prozesua bost jarduketa-ardatz nagusitan euskarritu da:

- a) gehiengo osoa agintekeriak eta tolerantziarik gabe gauzatzea;
- b) enpresa publiko handiak pribatizatzea, PPrekiko leialtasuna duten pertsonen eta erakundeen gidaritzapean jartzeko eta, horrela, Espainiako gobernuaren interes politikoaren nahiz mediatikoen zerbitzuan kudeatzeko;
- c) komunikabide nagusien kontrol ekonomikoa zein politikoa lortzea eta, horrenbestez, informazioa manipulatzeko;
- d) Terrorismoaren aurkako Ituna sinatzea, PSOEk aurkaritzarik gauzatu ezin izateko, Euskadiko erakundeei eraso egitea eta abertzaletasuna kriminalizatzea, eta
- e) aginte judizialaren kontrol politikoa gauzatzea, Estatuko Fiskal Nagusia eta Entzutegi Nazionaleko epaile batzuk disimulurik gabe inplikaturik eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Auzitegi Goreneko eta Konstituzio Auzitegiko kideak modu politikoan eta alderdikeriak izendatuz.

Estrategia horrek politikan eta gizartean izandako ondoriorik larrienak, bestalde, aginte-banaketaren printzipioa apurtzea, komunikabideak kontrolpean edukitzea eta kontrol demokratikorako mekanismoak eta bermeak desagertzea (agintearen erabilerari dagokionez) izan dira. Hain zuzen ere, atzerakada demokratiko horrek hiru tresna nagusi izan ditu:

- *legeen interpretazio berria*, esate baterako, Kode Zibilarrena; horrela, interpretazio zabalerako eta nahasirako bidea ireki da, talde armatuarekiko lankidetzari edo bertako kidea izateari dagokionez, baita subjektu kolektiboek egotzitako delituei dagokienez ere. Horren bitartez, egunkariak itxi, erakunde sozialak legez kanpo utzi eta hamarnaka pertsona espetxera sartu dituzte;

- ad hoc *idatzitako lege berrien sorrera*, eta horren adierazle nagusia, berriz, HB, EH eta Batasuna legez kanpo uzteko sorturiko Alderdi Politikoen Lege Organikoa izan da; hori, gainera, aitzakiatzat erabiltzen ari dira, Legebiltzarraren eta marko politikoaren aldaketa sustatzen duten beste ekimen batzuen aurka aurrekorik gabeko erasoaldia garatzeko;

- eta, azkenik, *legeen aldaketa*; horrela, besteak beste, espetxe-zaintza Entzutegi Nazionalan zentralizatu, prebentziozko espetxe-zigorra sistematikoki aplikatu, bihurtzeko kartzela-zigorra egintzen bidez ezarri eta espetxe-onurak, baldintzapeko askatasuna edota birgizarteratzea *de facto* indargabetu dituzte.

Panorama horrek demokraziak bizi duen egoera oso larria adierazten du. Sistema demokratiko bateko oinarriko askatasunak eta eskubideak arriskuan daude: askatasun ideologikoa edo elektorala, adierazpen-askatasuna, prentsakoa, elkartzekoa, manifestaziokoa, aukera politikorakoa, partaidetza politikorako eskubidea, alderdi politikoak sortzeko eskubidea, birgizarteratzekoa, legearekiko berdintasunekoa...

Blokeo politiko eta sozialeko faktore garrantzitsua dugu aurrez aurre. PPreu gobernua aspalditik soluzioen eremutik irten eta arazo eremuan sartuta dago; indarkeriari eta gatazka politikoari atzerakada demokratikoa gehitu behar zaie orain. Horrek guztiak euskal gizartean eta egoera politikoan duen eraginaren ondorioz, berriz, hiritarrek ez dute konfiantzarik politikan, justizian eta demokraziaren funtzionamenduan. Horren eraginez, interesik eta sentsibilitaterik eza nagusitu da gizartean, kalitateko eta oinarri sendoko demokrazia lortzeari dagokionez¹.

3. ETORKIZUNA: ABERTZALEON ERRONKAK XXI. MENDEKO LEHENENGO HAMARKADAN. EAJ-PNVREN KONPROMISOAK.

Arazo eta gatazka kronikoen eragile nagusienetakoa bazterkeria da. Euskal Herrian lehentasunezkoa da horren bi modu nagusien aurka borrokatzea: bazterkeria soziala eta bazterkeria politikoa. Bazterkeria soziala desorekekin eta sektorerik baztertuenen marjinezio-modu berriekin dago lotuta. Ezinbestekoa da eskubideen eta aukeren berdintasunean oinarrituriko gizartean aurrerapausoak ematea, bazterkeria-mota guztiak saihesteko politika publikoak bultzatuz.

Bazterkeria politikoak hiru adierazpen nagusi ditu:

ETAren mehatxuaren barruko *suntsipena, sektarismoa eta ezarkuntza*; sektore eta alderdi estatalen aurka zuzenduta dago, batez ere.

Bazterkeria politikoa eta bazterkeria zibila; Batasuna eta AuB legez kanpo uztearekin lotuta dago, horren bidez geure gizartearen %10 politikatik eta bizikidetzatik kanpo gelditu baita.

Nazioarekin, kulturarekin edo hizkuntzarekin loturiko identitatearen eraginezko bazterkeria; hori gordin-gordin azaltzen da UPN-PPk garaturiko politiketan, abertzaleak, euskara eta euskal kultura marjinatzeko garatu dituen politiketan, hain zuzen ere, eta PSOEK eta CDNk otzantasan nabaria izan dute. Nafarroan, Iparraldean edo Euskal Autonomia Erkidegoan, abertzaleok sentimendu nazionalen edo identitate kulturalaren ondoriozko marjinezio edo bazterkeria guztien aurka egin behar dugu borroka.

¹ "Konstituzionaltasun berria eta urritasun demokratikoa (Espainiako 1978ko Konstituzioak 25 urte)" izeneko eranskinean, gai hauek guztiak sakonago aztertuta daude.

Bazterkeriak gizartean eta politikan duen eraginak, bestalde, bazterturiko sektoreen etsipena, sakabanaketa eta marjinazioa dakar. Horren ondorioz, kohesioa eta gizartearen inplikazioa (prozesu eraikitzaileetan) lortu ezin izatearen arriskua sortzen da. Gure gizartean, inor ez dago soberan eta etorkizuna denon artean eraiki behar dugu.

Hori dela eta, EAJ-PNVk konpromiso batzuk hartu nahi ditu etorkizunerako, geure gizartearen eta abertzaletasunaren funtsezko erronkei erantzun egokia eman ahal izateko.

3.1. BAKE PROZESU BAT GARATU.

EAJ-PNVren helburu nagusienetariko bat, izatez ere, mota guztietako indarkeriekin amaitzea eta giza eskubideen adierazpen unibertsalean jasotako eskubideen babesa bermatzea da, baita Euskal Herriko eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelei buruzko nazioarteko ituna gauzatzea ere.

Helburu hori betetzeko, ezinbestekoa da honako hau egitea:

Pertsonen segurtasuna, askatasuna eta bizitza bermatzeko baliabide demokratiko guztien erabilera bultzatu, eta mehatxupean dauden pertsoneri eta biktimei laguntza eta elkartasuna eskaini.

Indarkeriaren aurkako eta bizitza nahiz pertsona guztien funtsezko eskubideak defendatzearen aldeko mobilizazio soziala sustatu, eta giza eskubideen aldeko kultura salbuespenik gabe defendatu; kultura hori pertsonen duintasun besterenezinean oinarritzen da, eta askatasunik gabeko pertsonak babestu eta horien giza eskubideei arreta berezia eskainiko die.

Indar politiko eta sozialekiko elkarrizketa-prozesuak bultzatu, bake- eta adiskidetze-prozesua zehazteko eta, horrela, indarkeriari amaiera emateko.

Distentsio, komunikazio eta adiskidetze politikoari nahiz sozialari loturiko politikak garatu, mehatxu, inkomunikazio, bazterkeria edo sektakeria guztiak gainditu ahal izateko.



TXOSTEN POLITIKOA.

EUZKADI BURU BATZARRA
2007KO ABENDUAREN 1 ETIK-2RA.

KOIUNTURA AZTERKETA: HIRU ZIKLO AMAITZEAR DAUDE, ETORKIZUNA IDATZI BEHAR DUGU.

Txosten politikoa euskal politikarentzako fase berri bat izango denean indarrean egongo da eta bertan garatuko da. Eta aldi berri horretan errazagoa da ziklo politiko batzuen amaiera aurreikustea, etorkizunaren oinarriak baino.

Funtsean hiru dira amaitzear dauden zikloak. Azken urteotan euskal errealitate soziopolitikoa zeharkatu eta baldintzatu duten hiru ziklo.

• **ETAren zikloaren amaiera.**- Motibazio politikoko indarke-riak ez du sekula zentzu edota leku etikorik izan gure artean. Eta gaur egungo euskal gizartean, azken 10 urteotan bizi izandako prozesuen ostean, mundu guztiak uste du indarkeria, objektiboki, euskaldunek beren emantzipazio na-zionala, soziala eta ekonomikoa lortzeko oztopo nagusia dela.

ETak bere adierazpenaren bitartez su-etena amaitu zela ja-kinarazi zuenean, Anoetako proposamena ere bertan behera geratu zen. Horrela, Batasuna berriro babestera igaro zen eta hark bere ordezkartza eman zion. Horrela, uko egin zion euskal politikan egokituko litzaiokeen papera jokatzeari. Horrek guztiak izugarri zailtzen ditu elkarrizketaren

bitartez konponbide bat lortzeko aukera errealak eta muturreko ezker abertzalearen oinarri soziopolitikoak baliogabetzen du. ETaren indarkeriaren zikloa amaitzear dago, Batasunak, EAE-ANVk eta EHAKek politika instituzionala egiteko duten gaitasuna geroz eta eskasagoa da eta ETA-rekin batera itotzeko arriskua du.

Segur aski, azkeneko bake-prozesuak ez du heldutasunik eta ardurarik izan hura finkatzen lagundu izan lezaketen ezaugarri dagokiez. Zentzu honetan, lehenago hartu behar ziren espetxe-politikari buruzko neurriak; baliteke argitasuna eta diskrezioa falta izatea, eta jokabide oztotpatzailea eta hauteskondeekin lotutakoa soberan egotea. Baina komenigarria da funtsezkoa ez ahaztea eta, EBBak aurreko su-etena amaitzean egin zuen moduan, honakoa azpimarratzea: “ardura indarkeria berriro erabiltzea erabaki duenarena, hots, ETarena soilik da”.

• **Euskal politikan blokeen estratejiaren amaiera.**- Euskal politikaren azken hamar urteotan blokeen dinamika nagusitu da eta azken horrek gobernuak instituzioetan zuen aliantza politika ere aurretiaz diseinatzen zuen. Hala ere, azken legegintzaldi honetan Espainiako politikan egon diren gorabeherak PPren eta PSOEn arteko desadostasun nabarmenak eta beren oinarrien arteko ezberdintasun sakon eta konponezina eragin dituzte. Horri guztiari nazionalismo instituzionalak ordezkatzen duen jardunbide zentrala bereiztu izana gehitu behar zaio, arretaz aztertu beharreko testuinguru berria eskaintzen digun post-ETA hurbileko testuinguru berri baten esperoan.

Ikuspuntu politikotik, lerro sozialistetan zein beren buruak ezker abertzalekotzat dituztenen artean, EB eta EA bezalako beste alderdi batzuek itxaropenez espero zuten “kataluniar erarako” aukera instituzionala hurbil zegoela ikusita, euskal politikan ziklo berri bat hastear dela uste dute baita ere.

• **Ziklo baten amaiera Espainiako politikan.**- PPrentzat, su-etenen amaierarekin batera sortu den testuinguru politikoa hurrengo hauteskundeetan ETaren indarkeriaz baliatzeko estrategian sakontzeko aukera paregabea da. Era berean, PSOEek badaki su-etena iraunkorra hautsi izanak hurbileko etorkizuna kudeatzeko aukera gutxiago ematen dizkiola eta badaki, halaber, PPrekin izenpetutako terrorismoaren aurkako itunaren eremura, ia guztiz haren eskuetan dagoenera, itzuli ezin duela.

Egoera honetan, hurrengo hauteskunde orokorrekin batera, nolabait ziklo politiko bat amaituko da: PSOEn agortzen ari zaio anbigua izateko eta PPren mende egoteko epea. Izan ere, ezaugarri horiek beren buruaren biktima bihurtu dute eta horren adibide ezin hobea da Nafarroa duela gutxi gertatutakoa; PSOEek Nafarroa Bai-rekin gobernu aurrerakoa eta anitza eratzeari uko egin zion Nafarroako Foru-Erkidegoan.

Hurrengo hauteskunde orokorrekin batera, bi alderdien zailtasunak behin betiko amaituko dira. Irabazten duen alderdiak bere baitan egokitu zaien lekuarekin gustura ez dauden Naziok dituen Estatua zuzendu beharko du. Nazio horiek beren herritarren borondate demokratikoarekiko eta subiranoarekiko justuak eta errespetuzkoak diren oinarrietatik abiatuta beren estatusa negoziatu nahi dute.

• **Etorkizunak konpromisoa eskatzen digu:** ziklo batzuk amaitzear daudela aurreikusten dugu, baina etorkizunarekiko erreferentziak

ez dira hain argiak. Iragana hil egin da, baina berria dena ez da oraindik jaio. Azken urteotan iguripenetik itxaropenera igaro gara, ilusiotik frustraziora. Indarkeriarekin elkarriketaren bitartez amaitzeko azken apustua antzeman dugu eta alderdi-mahai baten aukera soslaitu dugu. Azken horren helburua, euskal gizartearen borondatearekiko errespetuan oinarrituta, normalizazio politikorako oinarritzko akordio bat lortzea litzateke.

Helburu bikoitz hori lortzeko zeharo konprometitu gara –eta etorkizunean ere halaxe egiten jarraituko dugu– eta Eusko Legebiltzarrean eta gorte nagusietan alderdien legea aldatzeko-ezabatzeko eta preso dau-den pertsonekin lotutako politika humanitarioaren aldeko ebazpenak sus-tatu ditugu. Bestalde, orain arteko ekimen guztietan aktiboki parte hartu dugu eta euskal alderdi politikoen artean akordio bat lortzeko oinarri meto-dologiko eta politikoak prestatu ditugu.

2007ko maiatzaren 27ko udal eta foru hauteskunderen os-tean etorkizunerako bi ikaspen ondoriozta ditzakegu: a) EAJ-PNV euskal politikaren ardatz nagusia da, herritarrek halaxe erabaki dutelako, eta er-dian dagoen aldetik bere lidergoko instituzioen gobernagarritasuna ber-matuko du; b) herritarrek politika egiteko eredu jakin bat eskatzen dute, eraginkortasunean, zintzotasunean, errespetuan, gizartearen partaidetzan eta erabakiak hartzeko gertutasunean oinarrituta egon beharko duena. Era berean, Euzkadin nortasunarekin lotutako edota sentsibilitate sozial eta politiko handiko kontuei –diskurtsoa/praktikaren koherentzia mantenduz-arreta eskaintzea eskatzen dute.

Geroz eta agerikoagoa da herritarren eskariak asetzeko al-derdi politikoetan eredu irekia eta integratzailea txertatzen ari dela. Ezbairik gabe, alderdiok etorkizuneko hauteskundeetarako kontuan hartu beharko genituzkeen gakoetako bat da hori. Euskal herritarrek eman diguten eta EAJ-PNVk kemenez, eraginkortasunez eta zintzotasunez aplikatzen jarrai-tu behar duen ikaspenetako bat da.

Euskal politika bidegurutze berri batera iritsi da. Baina bide-gurutze horretan bazterrak definituta dituzten bide bakarrak dagoeneko erabili ditugunak dira. Eta bide berriak egitea beharrezkoa da, azken ho-rietako sastrakak garbitzea. Hori da EAJ-PNVk lau urte hauetarako duen zeregina: Euskal Naziorako bidea egitea, euskaldunok Euzkadiaren etorkizu-na idazteko aukera izan dezagun baldintzak sortzea. **Katea ez da eten**, EAJ-PNVren historiaren 112 urteen ardatza Euskal Nazioa eraikitzea izan da. Euzkadi aske bat, pertsona askeen bizileku bat, lortzea da hasierako jeltzaleek, Sabinoren ideiak garatu zituztenek eta erbesteratze eta dikta-dura garaietako baldintzarik okerrenetan ideiak bizirik mantendu zituzte-nek, abertzale belaunaldi berrion eskuetan utzi zuten zeregina. Jeltzale horien omenez eta eraikitze prozesuan dagoen Euzkadirako ekarpen gisa, EAJ-PNVk, barne batasunak eta kohesioak eta gizartearen gehiengoaren babesak ematen dion indarrean oinarrituta, argi dauzka gutxi gorabehera hurbilekoa izango den etorkizunerako dituen erronkak eta konpromisoak.

EAJ-PNVren ustez, euskal gizarte sinetsita dago euskal ga-tazka politikoaren konponbidea bakea (giza eskubideen errespetua) eta normalizazio politikoa (subjektu politikoa bereiztea, erabakiak hartzeko eskubidea eta eskubide hori erabiltzeko akordioa) binomioaren arabe-rakoa izango dela. Laburbilduz, oinarritzko hiru printzipioetan oinarritutako erdiko ikuspuntua:

Elkarrizketa Politikoa, Bakea lortzeko eta konponbidearen bideari ekiteko (normalizazio politikoaren arazoari zein gure gizarteko elkarbizitzarenari dagokionez) elkarrizketa ezinbesteko konpromisotzat duena. Alderdien arteko elkarrizketa irekia, azken horietako kideok gure proiektuak bakezaleak eta demokratikoak diren bideen bitartez defendatzeko konpromisoa hartzen dugula kontuan hartuta.

Euskal gizartearen erabakiak errespetatzea, Instituzioak eta euskal herritar gehienen borondatearen bitartez orain arte eraikitako esparru juridikoak errespetatzearekin lotuta dagoena. Bestalde, aldaketa aukeren legitimitate demokratikoarekiko eta aipatu horiek berritzeko eta aldatzeko errespetua ere barne hartzen du.

Gizartea eraikitzea, euskal gizartearen aniztasunaren eza-gutzatik eta onarpenetik abiatuta eta behartsuenekiko integrazio, garpn, justizia sozialeko eta elkartasuneko eredu batean oinarrituta. Gure Herriak XXI. mendean gainditu beharreko aldaketa sakonei bermeeekin aurre egiteko gai den erreferentea.

EUSKAL NAZIOAREN ERRONKAK.

BAKEAREN ERRONKA.

EAJ-PNVk uste du bakea, indarkeria gabezia oinarrituta egonda ere, hori baino askoz gehiago dela: elkarrizketarengandik bakarrik arengandik baino hurbilago dagoen prozesuaren xedea da, hezkuntzarekin eta tolerantziarekin ezjakintasunarekin, begirunerik eza-rekin edo axolagabetasunarekin baino lotura handiagoa duena. Pertsona guztiekiko errespetu handian oinarrituta egon behar duen prozesua.

EAJ-PNVk, su-eten iraunkor baten ostean, elkarrizketan oinarritutako indarkeriaren amaiera ahalbidetuko duten baldintzen alde lan egiten jarraitzeko konpromisoari eusten dio. Indarkeriaren amaiera horrek ETAK armak behin betiko alde batera uztea eragingo du. Abiapuntuak ETAK armak behin betiko alde batera uzteko erabakian oinarrituta egon behar du. Eta hori lortzeko, indar politikook, gizarte-agenteen eta instituzio publikoen parte hartzearekin batera, ETArekin indarkeriaren mende dauden oinarri sozialak aldatzeko eta berriro orientatzeko beharrezko oinarri demokratikoak sendotu behar ditugu.

Horretarako, EAJ-PNVk ondorengo neurriak sustatuko ditu:

- Terrorismoa eta indarkeria gaitzestea eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako eskubideen urraketa salatzea.
- Hezkuntza, kultura eta distentsio, komunikazio eta adiskidetze politikoko eta sozialeko politiken bitartez indarkeria justifikatu nahi duen diskurtsoari legitimitatea ukatzea. Azken horiek baliagarriak dira mehatxua, inkomunikazioa, bazterketa eta sektakeriaren diskurtsoa gainditzeko.
- Pertsonen bizitza, askatasuna eta segurtasuna bermatzeko tresna demokratikoak erabiltzea. Terrorismoaren aurka borrokatzeko, Alderdien Legea bezalako ezohiko neurriak gaitzesten ditugu. Izan ere, Lege horrek eskubide zibil eta politikoak urratzen ditu eta adierazpide

politiko orok herriaren botoak ematen dion ordezkari izatea galarazten du. Era berean, espetxe-legedi berezia, ezohiko espetxe-legedia eta, oro har, epaile naturalaren eskumeneko bermeak aldatzen dituzten neurri guztiak gaitzesten ditugu.

- Terrorismoaren biktima guztiak babestea eta sozialki onartzea, eta euskal gizartean bakea eta adiskidetzeari lortzeko bide guztiak uztartzea. Horretarako, ezinbestekoa da frankismoaren biktimei ere babesa ematea, onartzea eta, hala badagokio, birgaitzea, bortxatutako ohorea eta ondarea arintzeko eta berreskuratzeko euskal instituzioen eskuetan dagoen guztia eginez.

- Alderdien arteko elkarrizketa, indarkeriari elkarrizketan oinarritutako amaiera emateko, kontu politikoak esparru politiko demokratikoan soilik argitzen direla kontuan hartuta.

Bakearekiko dugun konpromisoarekin batera, euskal bizitza politikoari heldutasuna, baretasuna eta zentzua eman nahi dizkiogu, gizarteak begi onez ikusi dezala nahi dugu eta gizartearen parte hartzea, bizitasun demokratikoaren adierazle nagusia, sustatu nahi dugu: gure ardurua da, EAJ-PNVrena, euskal herritarrek gu aukeratu gaituzte eta politika zuzentzeko.

NORMALIZAZIO POLITIKOA LORTZE ALDERA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA.

Euskal gizartea sinetsita dago euskal gatazka politikoa bakea eta normalizazio politikoa binomioaren bitartez konponduko dela. Azken finean, bi konpromisoren arteko lan bateratuaren emaitza izango da: BAI bakean elkarbizitzeari eta BAI euskal gizarteak libre eta demokratikoki erabakitzeari.

Hamarkada batean baino epe laburragoan euskal gatazka gainditzeko sustatu diren ekimen politikoek –Ajuria Enea Mahaia-Ardantza Plana desblokeatzeko saiakera, Lizarrako prozesua, Estatutu Politiko Berriaren proiektua, Loiolako prozesua– itxaropenak eta ilusioa eragin zituzten gure gizartean. Euren porrotak, aldiz, konponbidea hurbil dagoen konbentzimenduaren bitartez gainditu behar dugun pesimismoa.

Gizarteak gure herrialdearen gatazka politikoa konpontzen lagunduko duten proposamen demokratiko positiboak nahi ditu. Normalizazio politikoa ezak eragindako egitura arazoak konponduko dituzten konponbideak nahi ditu.

Normalizazio politikoi buruz hitz egiten dugunean Euskal Herria subjektu politiko gisa onartzeari eta azken horrek autodeterminaziorako duen eskubideari erreferentzia egiten diogu. Beste hitz batzuetan, euskal herritarrek, askatasunez eta demokratikoki, Herri gisa beren etorkizunari buruz erabakitzekeo duten eskubidea errespetatzeari.

EAJ-PNVk, herriaren borondatea eta euskal gizarteak bere etorkizunari buruz askatasunez eta demokratikoki erabakitzekeo duen eskubidea errespetatzeko printzipiotik abiatuta, erabakitzekeo eskubidearekin eta euskal herritarren erabakiarekiko edo erabakiekiko errespetua bermatuko duten prozedurekin lotutako akordio bat sustatzeko konpromisoa hartu du. Askatasunez erabaki ahal izateko ituna.

Erabakitzeko eskubidea eta berau erabiltzea Herriak existitzearekiko eta onartzearekiko bateragarria da. Herritar guztiei berdintasun egoeran aplikatzen bazaie, euskal herritarren topaketa gune bihurtu behar dugun tresna demokratikoa da.

EAJ-PNVren iritziz, Estatutu Politiko Berriaren proiektuak, Eusko Legebiltzarraren gehiengo absolutuarekin onartutakoak, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako Hobekuntza Erreformak, euskal gatazka politikoari konponbide bat bilatzeko nahikoa printzipio eta eduki jasotzen dituzte.

Euskal herritarren gehiengoaren borondatearen emaitza legitimitate politikoaren eta demokratikoaren oinarria dela sinetsita, EAJ-PNVk beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak sustatuko ditu euskal gatazkaren konponbidea ahalbidetuko duen testuingurua sortzeko.

EAJ-PNVren helburuetako bat da Euzkadiko eta Estatu espainiarreko alderdi politikoen eta Instituzioen arteko adostasunaren emaitza izango den akordio bat lortzea. Giza eskubideak eta askatasun demokratikoak errespetatzeko esparruan, gizarteak berretsi beharko duen testuinguru berria.

Horrela, EAJ-PNVren ustez, alderdi politikoak eta Instituzioak, akordioa lortzeko borondatean oinarrituta eta beto mota guztiak gaitzetsiz, euskal gizarteari konponbideak eskaintzen ahalegindu beharko dute. Blokeo egoerak aurreikusita, komenigarria litzateke euskal gizarteak berak, herri kontsulta bezalako tresna demokratikoaren bitartez, existitzen diren oztopoak gainditzen lagunduko digun eta guztioi herriaren borondatea errespetatzera derrigortuko gaituen prozesua onetsiko balu.

Arduraz eta erabakitzeko indarrak baliatuta, aipatu testuingurua lortzeko baldintza egokiak sortzea gure betebeharra izango da, Euzko Alderdi Jeltzalearen betebeharra, hurrengo lau urteetan zehar.



EUROPAR
PARLAMENTURAKO
HAUTESKUNDEAK:

**EUROPAR
BATASUNA:
BAKERAKO
ESZENATOKIA.**

2009KO EKAINAREN 7A.

EUROPAR BATASUNA: BAKERAKO ESZENATOKIA.

Euskadin ematen da Europa osoan azken bortxakeria politikoa. Europar Batasunak lagundu ahal du eta lagundu behar du egoera hau pairatzen ea gainditzen. Bereziki esanguratsua izan da Ipar Irlandaren kasua, batasuneko instituzioek laguntasuna eman zieten alde biei, topaketarako puntuak aurki zitzaten eta bakerako

eta adiskidetzarako bideak bermatzeko ekimenak finantzatu zituzten. Ipar Irlandan bakea erdiestea izan da europar integrazioak erdietsi duen lorpenik handienetakoa eta gutxien ezagutua. 1993ko abenduko 20an Europar Kontseiluak adierazi zuenez *“Ipar Irlandako gatazka latza amaitzeak onura handiak ekarriko lizkieke erregioari, eraginpean dauden Estatu Kideei eta Europar Batasunari ere”*. Horrela ba, Batasunaren interes orokorra ere tartean dago gure herri honek sufritzen duen bortxakeria terrorista amaitzeko orduan.

PEACE II (Ipar Irlandako, muga erregioiko eta Irlandako Baketze eta Adiskidetzarako EBren egitasmoa) izenekoarekin bilatzen zen *“gizarte baketsu eta egonkorrerako aurrera egitea bultzatzea eta adiskidetzea bilatzea, ez soilik eragin zuzena duen erregioaren onerako baizik eta Europar Batasunaren onerako”*. Kontuan izan behar da agiriak berak esaten duela esperientzia honek emandakoa beste erregioetan ere aplikatu beharra dagoela. **EAJ-PNVk defendatzen du Europar Batasunak funtsezko egitekoa duela Euskadiko gatazka konpontzeko orduan.**

EAJ-PNVren ustez, Europaren integrazioa Estatuaren arteko gatazkekin amaitzeko helburuarekin sortu zela kontuan harturik, gaur egun XXI. Mende honetan ahal duen guztia egin behar duela bere muga barruan ematen den azken gatazka politikoa konpontzeko. Ez soilik esku zabaltasunagatik eta Europaren baloreekiko koherentziagatik, baizik eta mugaz kanpo ere baketzeko eragile funtzioa betetzeko duen egitekoarekiko koherentziagatik ere.

Azken batean, bakeak Europar Batasuna izena duen esparru politikoaren lankidetzeta eta esku zabaltasuna eskatzen du. Irlandako kasuarekin ez bezala, Euskadik ez du diru laguntasunik behar. Dena den, babes politikoa, instituzioen lankidetzeta, gure herriaren eta gure instituzioen onarpena izango da EAJ-PNVk atsedetik hartu gabe bilatuko duena, horrek guztiak lagunduko digulakoan bake eta normalizazio politikoa erdiesteko bidean.

EAJ-PNVk batasuneko instituzioen laguntasuna eta babes bilatuko du elkarrizketa politikoan eta Giza Eskubideen errespetu zorrotzeari oinarritutako bake iraunkorrerako eszenatokia bultzatzeko eta sendotzeko.



ADOS.

**EUSKADI GLOBALERAKO
ETORKIZUN EGITASMOA.**

AUTOGOBERNUA,
NAZIOARTETZEA
ETA PARTE HARTZEA.

ADOS.

EUSKADI GLOBALERAKO ETORKIZUN EGITASMOA.

AUTOGOBERNUA, NAZIOARTETZEA
ETA PARTE HARTZEA.

TESTUINGURU POLITIKO BERRIA: EUSKADIREN BAKETZEA.

Egoera politikoa goitik behera aldatu da Euskadin azken aldian. Euskal hiritargoak gero eta hedatuago dagoen itxaropena dauka, behin betiko bakea lortzeko. Iraganeko bake ekimenak garatu gabe geratu ziren eta horrek frustrazio sentimendu handia eragin du biztanlerian. Oraingoan, ordea gauzak aldatzen hasi dira eta aldaketak oinarrietatik hasi dira, baina gizarte ilusioa ahulagoa da azken hamarkadan ezerezean geratu diren prozesuen eraginez.

Euskal gizartearen gehiengo zabala konbentziturata dago ETaren jardueraren amaierara iristen ari garela, eta konbentzimendu honetarako hiru arrazoi daude:

EUSKADI GLOBALERAKO ETORKIZUN EGITASMOA.
AUTOGOBERNUA, NAZIOARTETZEA ETA PARTE HARTZEA.

1.- Era transzendental batean, euskal gizartearen gehiengo zabal batek betidanik gaitzetsi izan ditu ETaren jardunak. Gaitzespen honek irmotasun berezia hartzen du trantsizio demokratikoa eman zenez geroztik. Gizarteak jarrera aktiboa mantendu izan du honen inguruan. Urteek aurrera egin ahala, terrorismoaren erabilpena jasanezin bilakatu da euskaldunontzat eta gizarteak berak ito du bortxakeriaren legitimazioa.

Honi lotuta eta terrorismoarekiko iritziarekin batera, nazioarte mailan eman den gaitzespena izan da, bereziki “1-11”n gertatutakoaz geroztik.

2.- Bakerako itxaropenari arnasa ematen dion bigarren elementua da Ezker Abertzale Historikoan izan den aldaketa estrategikoa, bide demokratikoen alderdian jarri da eta urrats esanguratsua eman du, bortxakeriaren erabilpena gaitzetsi duelarik. Ez da irreflexiotik eman den urratsa, baizik eta guztiz aldearantziz gertatu da, luzez eztabaidatua, hausnartua eta erabakia izan da Ezker Abertzalea deritzonaren aldetik. Ezker Abertzale politiko honek bere lidergoaren beharra bereganatu du eta ETari adierazi dio bortxakeriak ez duela zereginik Euskadiren eraikitze sozial eta nazionalen.

ETak Ezker Abertzale historikoak legezkotasunik gabe ez du inolako etorkizunik. Aldaketa estrategiko hori izan da gizartearengan itxaropena piztu duena.

3.- Hirugarrenik ETak berak aldarrikaturiko “su eten” iraunkor, egiaztagarri eta orokorrak adierazi egiten du Ezker Abertzalea deritzonak adierazitako borondateaz ohartuta dagoela eta bide hori ibiltzeko posibilitatea aztertzen egon daitekeela.

Euskal gizarteak aukera guztietaz baliatzea eskatzen du. Bakeak goi mailako balioa du gure herrirako; horregatik, denen artean ahalik eta ahaleginik handiena egitea merezi du, ager daitezkeen egoera guztiei etekina atera diezaiegun.

Zer da aukera guztiei etekina ateratzea?

Bakea, berez, helburu gorena izatea, eta ez dugu onartu behar inork bakearen ura bere interes politikoen errotara eramaterik.

Aukera guztietaz baliatzea da politikaren baliatzeari demokraziarekiko errespetu eta konpromisoan ekitea. Ezinbestekoa da ikuspuntu demokratiko batetik, eta ezinbestekoa da Euskadiren baketze prozesurako.

Ezker Abertzaleari bide demokratikoen aldeko apustua exijitzea, eta, aldi berean, ilegalizatuta mantentzea, gainditzea zaila den kontraesana da. Are gehiago, Ezker Abertzalearen ibilbide demokratikoa indartzea ezinbestekoa da bortxakeriaren legitimazioa historiaren parte bat izatera igaro dadin.

Osoko parte hartze politikoa ahalbidetu behar da, ordezkariak instituzionalerako gaitasuna sentsibilitate guztietara irekiaz.

Testuinguru honetan, bake eta adiskidetzearen aldeko kultura popularra indartu beharra dago, ez dugu ahaztu behar bortxakeria izan den hamarkadetan eragindako sufrimendua.

Bortxakeriatik demokraziarako trantsizio honetan parte hartuta, terrorismoak eragindako biktima guztiak aintzat hartuta eta gogoan izanda, bortxakeriaren biktima guztiak babestuta, ETAko presoek senideen egoera hobetuta.



**EUSKADI,
NAZIOA EUROPAN.**

2015ERAKO ARDURA
ETA ERRONKA POLITIKOAK.



EUSKADI, NAZIOA EUROAPAN.

2015ERAKO ARDURA ETA ERRONKA POLITIKOAK.

EUSKADIN 2007 URTETIK HONA BIZI IZANDAKO ALDAKETA.

Bakea, ETAren amaieratik ulertua, hurbilago.

Eragile berriak erakunde mapan.

HERRI GISA DITUGUN ERRONKAK.

Burujabetasun eta autogobernu gehiago.

Herri-nazioa prozesu estrategiko baten bidez eginez.

EUSKADI , NAZIOA EUROAPAN. 2015ERAKO PROPOSAMENAK.

Bakea eta elkartasuna.

EUSKADIN 2007 URTETIK HONA BIZI IZANDAKO ALDAKETA.

Arlo politikoan ere, asko izan dira bizi izandako aldaketak. Eredu instituzionalean, hauteskunde autonomikoak ondo irabazi genituen arren, "Alderdien Legearen" aplikazioan kalkulu politikoa erabili izanak, Eusko Legebiltzarreko tokiak murriztu direlarik eta PSE-PP arteko aliantzak Euskadiko A.E.n eragin zuten eusko abertzaletasuna Eusko Jaurlaritzaren ardura tokitik kanporatzea.



**EUSKADI,
NAZIOA EUROAPAN.**

2015ERAKO ARDURA ETA ERRONKA POLITIKOAK.

Alderdi konstituzionalistek “ erdiko bidea” eraikitzeko asmoa izan dute, Euskadiko A.E.ko hainbat udaletan lehendik praktikatu izan zuten apustua, eta Nafarroan UPN-PSN akordio bidez gauzatu zena. Apustu honen oinarri bakarra da espainiar muturkeria konstituzionala, Euskadi sistema konstituzionalera sartzea, Euskal Autonomi Erkidegoa Estatuko beste autonomien pare jartzeko. Alderdi politikoaren legezarekin batera, Estatuak euskal izate desberdina balio gabetzeko saiakera ikusi izan dugu.

Errealitatean, martxan jarri zenetik bi urte igaro direlarik, eta gutxiengoan gobernatzen duen kolore bakarreko Gobernuarekin, eta kanpoko babes teoriko nahikoa izan duen arren, aukera honek porrota jaso du. Porrota ez da bere ezerginkortasunetik eta izaera artifizialek etorri, baizik eta euskal gizarteak berak duela gutxi ospatu izan diren Udal eta Foru Hauteskundeetan balio gabetu izan duelako.

Ezker Abertzale berria sartzean, hautestontziek bestelako mapa politikoa marraztu dute Hego Euskadin. Mapa anitz honetan, EAJ-PNVk toki batzuk galdu ditu. Mapa berri honek elkar onartzean oinarritutako akordioak bilatzea eta eragile eta egitasmo politiko guztien arteko egoera berdintasuna onartzea exijitzen du.

Akordioa da euskal gizarteak planteatutako helburuak lortzeko exijitzen duen prozedura eta , beraz, Alderdi Honentzako oinarritzko helburua da, instituzioetan eraldaketa nabarmena bizi izan duelarik. Euskadiko lehen alderdia izaten jarraitzen dugu, baina indar hegemonikoa galdu dugu.

Aldaketa politikoa eta aniztasunaren sendotzea ahalbidetu duen eboluzio nabaria izan da: ETAren bortxakeriaren amaiera. Epe laburrean, edozein modutan, bere behin betiko bukaera egiaztatu behar duen erakunde terroristaren azken urratsen aurrean aurkitzen gara. Ziklo amaiera honek aurreikuspen berriak irekiko ditu- egin du jadanik- Euskadin. Aldi berria hasi da.

Indarrean dirauen gatazka politikoa konpontzeko aukera irekitzen duen aldi berria. Euskal Aberriak, Euskal Herriaren talde nortasunaren adierazpidea den heinean, gure egitura politiko propioa demokratikoki erabakitzeko eskubidea du. Egitura politiko hori legitimatzeko subjektu bakarra, zazpi herrialdetan oinarritzen den Euskal Aberria da. Hori da EAJ-PNVren helburu nagusia.

Euskadik Espainia eta Frantziarekin duen gatazka politikoaren oinarrian dago, Euskal Herria eta bere eskubideak , Estatu hauek espainiar eta frantziar nazioen eskubideak onartzen dituzten termino beretan ez onartzea.

EAJ-PNV Euskal Herriaren zerbitzura dagoen tresna da, gatazka politikoari konponbidea emateko xedearekin. ETA nazio eraikuntza eta Euskadiren interesak objetiboki kaltetu dituen eragilea izan da, eta da. ETAren bortxakeriaren amaierak aukera bat zabaltzen du Euskal herriak jauzi kualitatiboa ematerik izan dezan, eta EAJ-PNVk izan behar du estrategia honetarako tresna nagusia.

BAKEA, ETAREN AMAIERATIK ULERTUA, HURBILAGO.

Inoiz baino hurbilago gaude Bakea lortzeko helburutik, horretarako ezinbesteko abiapuntua da ETAREN bortxazko jardueraren amaiera.

Euskal gizarteak ETAREN bortxakeria errefusatzeko erakutsi duen borondatea ezinbesteko faktorea izan da ezker abertzalearen eta ETAREN berearen estrategia aldarazteko. Euskal gizartearen mezua argia da: bortxakeriari lekurik ez. Euskal gizartearen presio honek, jardun polizial eta judizialarekin eta nazioarte mailako koordinazioari lotuta, bere fruituak eman ditu. ETA nabarmenki ahuldu da eta derrigortua izan da “era orokorrean jarduera behin betiko uzteko” adierazpena egitera. Lehen urratsa da, garrantzizkoa baina ez erabatekoa; onartzea kostatuko zaion arren, ETAK jakin badaki bere denbora bukatu dela, eta lehenago edo beranduago, bere jarduera armatuaren amaiera onartu eta aldarrikatu beharko duela.

Ezker abertzale historikoa urteotan bizi izan zen ETAREN buruzagitza politiko eta militarren menpean, eta orain onartu du bide armatuaren bide-erantzintasuna. Hala adierazi du euskal gizartearen aurrean, eta hala ekin dio bere jardura legezkotasun juridikora egokitzera, honek hautestontzietan lehiatzeko aukera eman diolarik. Jakin badakite “estrategia politiko-militarra” eta bortxakeriaren erabilpena gainbehera etorri direla eta garai berriak etortzeko aldia dela, politika egiteko aldia. Urrats bat eman dute, asko gehiago eman behar dituzte kultura demokratikoaren bidera atzera bueltarik gabe sar daitezten, bide hori baita helburu politikoak lortzeko bakarra.

Bizi dugun aldi politiko berrian, euskal gizarteak hurbiletik ikusten du ETAREN amaiera. Gizarteak terrorismoa argi eta garbi arbuiatu izanak ezker abertzalea derrigortu du bide politiko eta demokratiko hutsetan oinarritutako estrategia planteatzera. ETAK euskal gizarteari zor dio bortxakeria behin betiko amaitzea, eta ezker abertzaleari exijitu behar diogu helburu hau lortzeko osoko pro-aktibitatea.

Hala eta guztiz ere, egiazko Bakearen eta adiskidetzaren lorpena ETAREN desagertzearen harago dago. Hiritargo osoaren balore eta kultura demokratikoaren barneratzean sakondu beharra dago, bizikidetzaren demokratikoaren egiazko pegasia jarrera, balore eta portaeretan gauzatuz.

Bakearen eta adiskidetzaren eraikuntzarako oinarriak dira hurkoaren sufrimendua onartzea eta biktima guztiei dagokien ordain moral eta materiala. ETAREN amaiera euskal gizartearen jarrera etikoan oinarritu behar litzateke, eta ez bakarrik egitasmo politiko batek beste bati garaitzen diola. ETAREN amaiera interes politikoan oinarrituta eraikiko balitz, oinarri okerrak ezarriko lirateke bake eta adiskidetzarako etorkizuna eraikitzeke orduan. Aldi berrirako euskarriak gizarte osoak partekatuko duen jarrera etikoa suposatzen behar du.

ERAGILE BERRIAK ERAKUNDE MAPAN.

Testuinguru instituzionalari dagokionez, ezker abertzale tradizionalak bere legalizaziorako baldintza juridikoak bete ditu. Legezketasunera itzuli izanak indarra eman dio udal eta foru erakundeetan sartzeko orduan. Beti egon behar izan zuketean tokian. Baldintza juridikoak beteta, bete gabe dute oraindik bizikidetza demokratikoak ezartzen dituen baldintza politiko eta etikoak. Eta ondorioz, Estatuak bete beharko du ezker abertzalearen marka propioaren legeztatzea.

HERRI GISA DITUGUN ERRONKAK.

BURUJABETASUN ETA AUTOGOBERNU GEHIAGO.

Gure helburuak erdiesteko, beharrezko dugu gero eta mendetasun maila txikiagoa izatea. Une bakoitzean, gure kabuz erantzuteko eta erabakitzeko gaitasun handiagoa, askatasun handiagoa. Gure tokia irabazi behar dugu, nazioarte mailan herri eta gizarte erreferentea garen neurrian.

Euskadi egitasmo sozial, ekonomiko eta politiko propioa da. Gure kultura, hizkuntza eta nortasun propioa ditugu. Euskal hiritar guztien borondatean oinarritutako egitasmoa. Gu geu gara eta gu geu izan nahi dugu. Sendotu nahi dugun nortasuna partekatzen dugu. Burujabetasunean eta autogobernua aurrera egiteko nahia, etorkizuna erabakitzeko eskubide eta gaitasunaren aldarriaren printzipio demokratikoak, eta giza eskubide guztiekiko errespetua bateratuko dituen herri egitasmo estrategikoan planteatzen da .

Gure herriaren borondateak zilegi egiten ditu autogobernurako gogo eta eskubideak, baina ezin dugu ahaztu autogobernua ez dela fetitxe hutsa, baizik eta ongizate nahia, bizitza kalitaterako asmoa. Hego Euskadiko eraikuntza instituzionalak hazkunde ekonomikoa (giza garapena, Europako batz bestekoaren gaineko errenta maila) eta oinarrizko zerbitzu publiko eraginkorrak (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kultura, garraioa eta mugikortasuna) eskaini dizkigu, bereziki Euskadiko A.E.n.

Ez gara bidez erratu. Autogobernua izan da eta da aurrerabidea, ongizatea eta bizitza kalitatea. Horregatik, gure nortasuna eta euskal gizartearen interes orokorra indartzen jarraitu beharra dugu.

Ez dugu, lortu dugun autogobernu estatusa ukatuko. Alderantziz, instituzionalki hazi nahi dugu, munduan dugun kokapena finkatzeko. Euskadik ez du “trenaren azken bagoian” geratu nahi. Gure tokia “ europar lokomotoran” dago, Europa ekonomiko, politiko, sozial eta kultural aurreratuenaren eraikuntzan.

Testuinguru honetan, gaur egungo Espainia Euskadiren garapenerako balazta bilakatu da. Espainiako desoreka ekonomiko eta instituzionalek nazioarte mailako mesfidantza handia eragiten dute. Mesfidantza hau nazioarteko finantza merkatuetara eta euskal enpresen “merkatu bezeroetara” igarotzen da. Nazioarteko erreferente bilakatu behar dugu eta ez termino politkotan soilik, baizik eta termino sozial eta ekonomikotan ere, Euskadik mundu mailako presentzia eta nortasun propioa izanik.

Espainiar aterki azpian eta Frantziar aterpean tresna propiorik gabe lortu ezin dugun garapen erritmoa erdietsi behar dugu. Eta honetarako ezinbestekoa dugu burujabetasun printzipioa politikoki egituratzea, hau da, gure etorkizuna erabakitzeko gaitasuna. Ez dugu egiten aurkaketa politikoa nahi dugulako, baizik eta hiritarren interesa delako. Euskal hiritarrok mundu hobe nahi dugulako eta munduko gainerako nazioek dituzten eskubideak ditugulako.

Balore hauek defendatu eta sustatu behar ditugu. Eta horretarako, nor izango da EAJ-PNV baino hobe? Guk betidanik defendatu ditugu Euskadiren interesak. EAJ-PNVk euskal aberri estrategia lideratu behar du, eta Herri egitasmorako edukien inguruko akordio estrategikoak bilatu behar ditu. Herri gisa lortu ditugun erakundeetatik eta bestelako foroetatik ere, oposiziotik ere. Beti gure Herriaren zerbitzura.

Uniformitatean edo lortutako botere esparruetan geratzea, atzean geratzea da, datorkigun errealitatean kokapena galtzea. Egitura politiko propioa lortu nahi dugu gure gizarte nortasuna babesteko eta garatzeko. Euskal hiritarrok hobeto bizi nahi dugu, enpleguan eta ongizatean ziur, lehen mailako gizarte zerbitzuekin. Indar ekonomikoarekin. Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da lehenengo garapen instituzionala lortzea, planteatutako erronkekin bat etorriko den gobernatzea.

Gure strategiaren helburua da Euskadiren hazkundera ahalbidetzea, ikuspuntu politiko, sozial, ekonomiko zein instituzionaletik haztea; Euskadi nazio gisa aldarrikatzea eta Herri gisa dituen eskubideak onartzea suposatuko duen instituzionalizatzea lortzea. Hazkunde ekonomikoa eta hazkunde instituzionala dira garapen eta gizarte kohesio handiagoaren lorpena oinarritu behar dutenak. Aberastasuna lortzea, Europan gizarte kohesionatu eta kementsua lortzeko. Burujabetasuna egunetik egunera gauzatzea, lortutako esparruak finkatuta, eta urrats berriak emanda.

Euskadi nazio zaharra da eta berrizatu eta indartu egiten dena. Euskadi, Europan nazioa. Bertan dauden besteekin batera, besteak beste Estonia edo Kroazia. Bidea eskatzen duten beste batzuekin batera, besteak beste Eskozia eta Flandria. Gure helburua jarri behar dugu “europar trenak” aurrera egiten duen tokian. “Burujabetasun politikoa” eta “burujabetasun ekonomikoa” uztartu behar

ditugu. “Burujabetasun ekonomikoa” “protektionismo ekonomikoarekin” nahastu gabe, Euskadi gero eta independenteagoa eta era berean gero eta mundura irekiagoa behar dugulako.

Europa da mundura sartzeko dugun atea. Gure esparru geopolitiko eta ekonomiko naturala da, eta hortik begiratzen diegu munduko gainerako kontinenteei.

Europa eragiten digun errealitate propioa da. Eta, gero eta gehiago. Europar araudiaren %80a zuzenean aplikatzen da Estatuetan. Hego-Euskadi, nortasun eta eskumen propioak dituen erkidego politikoa den aldetik, ezin da europar erabaki esparrutik kanpo geratu. Horretan ere ez dugu subsidiario edo azpiko izan nahi, Ipar-Euskadin ere ez, non toki gobernatzeko eredu berria izatea bilatzen dugun, herrialde honen garapenerako behar diren eskumenak eta autonomia izango dituzten erakundeak izanda. Euskal Nazioa egitasmoak etorkizuna duelakoan gaude, eta bere kabuz dagokio etorkizun hau, Europar Batasunaren barruan bere toki propioa bilatzen duen errealitatea delakoan.

Horregatik guztiagatik, harago begiratu beharra dugu. Euskadiren nazioartetze ekonomiko, politiko eta kulturalerako egitasmoa garatu beharra dugu.

Egitasmo honetan, Europa izan behar da lehen helmuga, baina eszena-toki global berrira iritsi behar da. Euskadi, Nazioa Europan eta munduan. Euskal talde handiak dituztelako, ekonomikoki, arlo kulturalen edo sentimenduz lotuta gauden herriengandik hurbil. Era berean, harreman urriagoa izanik ere, gure enpresentzako aukera diren herrietatik hurbil. Haiengana, ekimen biziz hurbildu beharra dugu.

Egiten dakien herria gara, gauzak ondo egiten dituen. Horregatik, gure marka propioa sortu, sustatu eta kokatu beharra dugu, “Euskadi” marka. Balore eta nortasun propioa dituen euskal erkidegoa ordezkatzeko duen marka, gure herrian era baikorren eragingo duena eta herri eta kultura arteko nazioarteko eszenatikiko elkarrizketan parte hartzeko lagunduko duena. Honek ere “euskara lurraldeko” harremanak instituzionalizatzea suposatzen du, euskal erkidegoa mundu osoan kokatzen duen kultura lurralde partekatua. Gaur egun ezagun diren muga politikoak gaindituko dituen lurraldea, eta borondatez euskaldun sentituko diren eta euskaldun gisa aldarrikatuko diren guztiak hartuko dituen.

HERRI-NAZIOA PROZESU ESTRATEGIKO BATEN BIDEZ EGINEZ.

Bakea da errezeta honetarako oinarrizko osagaia. Gaurko ongizate maila bortxazko testuinguruan lortu ahal izan badugu, aldi berri honetan, ETAREN bortxakeriaren amaiera berrabiatze berrirako aukera izatea lortu behar dugu. Gure Herriaren borondate askean oinarri harturik, gure asmo politiko zilegiak errealitate egin daitezten.

EUSKADI, NAZIOA EUROAPAN. 2015ERAKO PROPOSAMENAK.

BAKEA ETA ELKARTASUNA.

Bakea lortzea gizartearen eskakizuna da. Gure gizartearentzat ulergaitz gertatzen da alderdi politikoek gai “ txikien ” inguruko akordioak bilatzen duten bitartean, alderantziz hain berekoi agertzea, Bakea, interes “ gorena ” denean.

Zer ote du Bakeak hain eskurazekin gertatzeko? Aipatzerik ez dagoen ezer: prezioaren bat?; edo, hobeto esanda, prezio ugari? Bakea hil ala biziko gaia da hiltzen dutenentzat eta hiltzen direnentzat. Baina, horrez guztiaz gain, Bakea izan da beti kalkulu politikorako zerbit.

Bakea lortzeko desio beste prezio egon dira; baina onura partikularrak lortzeko bada, denon bakea ez da eragile politiko bakoitzak lortuko dituen onuren aurrerakina. Denontzako bakerako baldintza beldurrik eza da, eta horren ondorioa da terrorearen amaiera eta normaltasun demokratikoa.

Ezinezko gertatuko da denok irabaztea, bakoitzak berea “ irabaztean ” tematzen bada. ETAK bere erabakiak ezker abertzale legalizatuaren arrakasta edo onuren arabera neurtzen baditu; edo bestela, unean uneko Gobernuak edo oposizioko alderdiak beretzat irabazi nahi duelako, bortxakeriaren amaiera beren helburu politikotarako bultzada gisa erabili nahi badute. Hauek jarrera biak ez dira onargarriak.

Azken lau urteotan, urrats esanguratsuak, eta gure ustez atzera ezinak eman dira Euskadin Bakea lor dezagun.

Aldi honen aurrekaria, gizartearen bortxakeriaren praktika eta justifikazioaren deslegitimazioan irmo agertu ondoren eta erakundeekiko konpromisoa duen abertzaletasunak zorrotasun osoz agertzean, 2009ko azaroan gertatu zen ezker abertzale tradizionalak “ Mitchell printzipioak ”, hau da, bide politiko eta demokratiko hutsak bereganatzeko adierazpena egin zuenean.

Brusela eta Gernikan berretsitako adierazpen honen barruan ETARI eskatzen zaio “ su eten behin betikoa, alde bakarrekoa eta nazioarteko erkidegoak egiazta dezakeena, bere bortxazko jarduerari uzteko borondatearen adierazpen gisa ”.

Ezein gogoetaren aurrean, prozesu honen gakoa da elkarrizketa eta bortxakeria arteko bateraezintasuna. Horregatik, bizikidetzaren baketze eta normalizatorako aldiaren onarpenerako, bortxazko jardueraren behin betiko amaiera eman behar da lehenik. Horrela ba, elkarrizketa eta negoziaketa ez dira baketze prozesuaren zerbitzura egongo, baizik eta bortxazko jardueraren amaieraren borondate egiaztagarriaren ondorioa izango da.

ETAk oraingo jarreratik egin behar du “Gernikako Adierazpena” arteko bidea. Hau da, “ekintza armatu erasokorrik” ez egitetik “ alde bateko behin betiko su etenera”, eta “borroka armatuaren uzte behin betiko eta egiaztagarrirako” bidea. Hau guztia egin behar du bere aldetik eragile aktibo edo “prozesuaren tutore” izateko asmoa bazterrean utzita. Aldendu behar du, jarduera militarra guztiz utzi eta kanpotik instituzionalki abiatutako eta berretsitako egiaztapenaren bidez ziurtatuta.

Era berean, ETAk erreferente politiko izateari utzi behar dio. Ez da soilik armak isiltzea, prozesuan erreferentziazko protagonista izateari utzi behar dio. Akordio zibilak baino ez du bake bidezko eta iraunkorra finkatuko.

Aurreikuspen horiek beteta, aldi politiko berriak bortxakeria bertan behera uztearen baliozkotasunaren inguruko irizpideak eta balorazioak partekatzea exijituko digu. Gure balorazioa, alderdi politikoen artean bortxakeria bertan behera uztearen inguruan adostutako definizioarekin eta bere egiazkotasunaren egiazta-pen partekatuekin lotuko dugu. Baina, bortxakeriaren amaiera eta bakerako aldi berriaren hasiera, ia hatz puntekin hartzeko modura dugula ematen duen arren, oztopoak egon badaude oraindik , desio den helmugara iristeko. Izan daiteke ETAk borroka armatua behin betiko uzteko asmoa argi eta garbi adierazi ez duelako,edo ezker abertzalearen egokitzapen berriak ez diolako ETArri behin betiko amaitzeko exijentzia adierazi.

Bilduren legalizazioa, hauteskundeetan parte hartu izana eta erdeinatzerik ez dagoen emaitzak ikusita, ematen du ezker abertzale tradizionalak ETArekiko harremanetan mantentzen zuen listoia beheratu duela. Horren erakusle da Bilduk publikoki esan duela ez diola ETArri bere amaiera adieraztea eskatuko. Iraganeko keinuak eta adierazpen publiko batzuk errepikatu dira; hauen artean, hitzez esan ez arren, beren erabakiekin “garaipena PSOE edo PP alderdien eskura jarriko ez dutelako” irizpidea. Honek guztiak zera pentsatzera eramaten gaitu: beste behin ere, ezker abertzale tradizionalaren baitan kalkulu politikoak denon ongi orokorrak baino pisu handiagoa duela.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ustetan, Euskadik exijitzen duen arduraz jokatu beharra dugu. Helburu honekin, aukera politikotik harago, ezinbesteko jutzen dugu honako irizpide hauek ezartzea:

BAKEAK BERME GUZTIZKO PROZESUA EXIJITZEN DU

Erabakitzeko elementu bat dago bortxakeria erabiltzen duenari dagokiona, hau da, ETAk bere jarduerari amaiera emateko borondatea.

Alderdi politiko eta gizarte eragileek erabaki honekin batera doazen baldintza sozial, politiko eta legalak sortzen lagundu ahal dugu. Horregatik, bortxakeriaren amaierari ezin zaio larritasun eta asmo onen nahasmenarekin ekin.

Bermerik gabeko prozesua onartzerik ez dugun alderdi politikook ETari exijitzen diogu euskal hiritarrok askatasunez har ditzakegun erabakien onarpena eta baldintzarik gabeko begirunea.

ELKARRIZKETA ETA NEGOZIAKETA

Elkarrizketa erabakitzaileko prozesurako ezinbesteko baldintza da ETaren aldetik bortxakeriaren behin betiko amaiera; era berean, Espainiar Estatuaren aldetik Giza Eskubideen inguruan estatu barruan zein nazioartean indarrean dagoen legeria onartu behar du. Testuinguru honetan, elkarrizketa bortxakeria eta terrorismoaren amaiera absolutua ekarriko duen negoziaketa teknikorako prozesura abiatu beharra dago.

EZKER ABERTZALE TRADIZIONALA ETARENGANDIK BANATZEA.

Ezker abertzale tradizionalak erakunde demokratiko eta autonomo gisa birformulatzeko, beharrezkoa izango da marko juridikoak gainerako erakunde politikoei ezartzen dieten onarpen eta legezketasuna, eskubide eta derrigor ber-berekin, talde politiko batek sistema demokratiko batean dituen eskubide zibil guztiak emanda. Aitortze honek euskal gizartearen berregituratze soziologiko eta elektorala ez ezik, ezbai politikoak gizarte eta erakunde normalizaziorako bidea hartzea ahalbidetuko du.

LEGEbiltzARRAREN BALIOZKOTZEA JASO DUEN PROZESUA

Diputatuen Kongresuak 2005eko maiatzean, PP izan ezik Kongresuko legebiltzar talde guztiek onartutako ebazpenak Ajuria Eneako 1988ko Akordioko 10. puntua hitzez hitz hartzen zuen, eta zera ezartzen zen *“Indarkeriari elkarrizketabidez azkena emateko, horrekikoak egiteko benetako gogoan eta hori sinistarazteko moduko zalantzapiderik gabeko jarreratan oinarrituz, behar bezalako aukerarik izaten bada, Erresumako horretarako gai diren agintarien eta izuekintza bazter uztea erabakitzen dutenen arteko harreman-bideen alde gaude, beti ere politika-mailako gorabeherak herritarren nahiaren ordezkotza dutenen bidez soilik konponbideratu behar direlako utzi ezineko demokraziatzko sortarauari begirune izanez, noski...”*.

Atzoko moduan, gaur EAJ-PNVk printzipio hauek mantentzen ditu, eta aurreko prozesuetatik jaso dugun eskarmentuak zera pentsatzera eramaten gaitu: ETaren bortxazko jarduera behin betiko uztea egiaztatzeko egingo den elkarrizketa teknikorako edozein ekimenenak legebiltzarraren gaikuntza jaso beharko du, legebiltzarraren kontrola eta legebiltzarraren berrespena. Legebiltzarrak, zeinetan herriaren ordezkaritza naturala gauzatzen den, izango du elkarrizketaren arrakasta bermatzeko ahalmena edo beronen porrota beste ordainik gabe bereganatzekoa.

ESPETXE POLITIKA ETA GIZARTERATZEA BAKE ETA ELKARTASUNAREN ZERBITZURA.

Demokrazia egoeran, pertsona presoei botere publikoek inguruabar guztietan errespetatu eta babestu behar dituzten oinarrizko eskubideak zor zaizkie. Zuzenbide Estatuaren espetxe politikoaren ezaugarria da beti gizarteratzera norabidetuta dagoela. Zentzu honetan, Zigor Kodearen aplikazio malgua, zigorrak pertsona presoen etxebizitzetatik hurbileko espetxetan betetzea, senide eta lagunak bake eta adiskidetzarako eragileztat jotzea, eta inola ere, zehar-erruduntzat ez hartzea dira, inoiz baino gehiago, baketzearen zerbitzura dauden ezinbesteko elementuak.

Horrek ez du inolako aurre-baldintzarik behar. Beraz, espetxe politikari behin betiko norabide adostu, dinamiko eta malgua emateko ordua iritsi da. Horregatik EAJ-PNVk erronka honekin duen konpromisoa berresten dugu. Edozein kasutan, egina egon beharko zukeen zerbait delakoan gaude, Eusko Legebiltzarrean 1997an eta Diputatuen Kongresuan 1998an onartutako ebazpenekin bat etorritik.

BAKETIK ELKARTASUNERAKO BIDEA.

Bidezko bakea nahi eta bilatzen dugu, euskal gizarteak bortxazko hainbeste urteren buruan beharrezko duen zerbait delako. Baina, ez dugu ahaztu behar azken helburua Elkartasuna dela, adiskidetzea. Biktimek pairatutako sufri-mendu eta mina denek aitortu behar dute salbuespenik gabe, esku zabaltasunez eta ikuspegi zabalez. Horregatik, Baketik Elkartasunera doan bide zaila diseinatu eta lideratu beharko dugu. Beste herri batzuek lortu dute. Guk ere egin behar dugu.

ONDORIOA.

Eszenatoki horretan aurrera egiten den neurrian, eta baketze eta normalizazio aukera sendatzeko urratsak ematen diren heinean, Euzko Alderdi Jeltzaleak gainerako alderdi politiko eta erakundeekin ekimenak proposatu eta gauzatuko ditu, helburu horiek erdiesteko xedez.

Horrela ba, EAJ-PNVk behar besteko isileko ekimen zein ekimen publiko gauzatuko ditu, Euskadin Bakea behin betiko lortzerik izan dezagun.